TTiPi-TTAPA

BAZTAN - BIDASOA - MALDA ERREKAKO ALDIZKARIA

1985'ko Ekaina 12. zenb.

LORE BILA

Eskolatik etori ginenean, aldatu egin ginen. Joan ginen lore bila eta lurruntu zitzaigun, estrata batetik ez ginela joan behin ere.

Hasi ginen lore bila eta ez genuen harrapatzen. Eskutan genituen loreak igartu ziren berarekin. Adutu genituen tiri baten kantak eta guk egiten genuen troia bezala.

Beatriz segtu zuen aintzina eta nik ikusi nuen musterra bezalako animalia bat baina beltza.

Egin genuen ahuska ¡Ah!

Beatriz ikaratuta geldtu zen eta nik esan nion: Pisti bat ikusi dut! Ikaratuta pentsatu genuen etxera itzultzea.

Borda bat ikusi genuen eta zuzendu ginen barera; ikusi genuen momoru bat beltz bat. Lasterka joan ginen etxera.

BEATRIZ ETA EDURNE MIKEO (AURTIZ)



NON-ZER

BERRIAK
2. ARANTZA
3. IGANTZI. ITUREN
4. LESAKA
6. BERA
9. BAZTAN
10. ETXALAR
12. BEINTZA-LABAIEN • DONEZTEBE
13. ZEUTATIK. ERASUNGO M. ELIZALDERI JASDA
14. BESTA HAREN OROIMENAK
15. BERTSOLARIEI BURUZ KRITIKA BAT
16. HERRI HANDITIK HERRI TTIKIRA
17. TRISTE
18. GIZAKIARI SEXU AMODIO DATXEKID
20. TTIPI TTAPARAKO BERTSOAK
21. ZERGATIK ARI NAIZEN EUSKARA IKASTEN
22. IZENA
24. BERAKO IKASTOLA ETA ESKOLA PUBLIKO-AREN EGOERA
26. EGIA ETA GEZURRA
27. BAINA EUSKARA ZERTARAKO
28. IDUIN EROTIKO BAT
29. OILARRA, AZERIA ETA ZAKURRA. NEKATURIK JAIOTZEN DEN ELKARTEA
30. DORDATXO ETA GINTONIKA
31. ZUBIETATIK ASURARA ARDIAK ERANATEN
32. ARANTZAKO POPULAZIOAREN AZTERKETA
35. AZKENEAN DENA JAKITEN DA NERE GELAKO PROBLEMA
36. DERTSOAK? ETOR BITEZ KAMIOKADA OSOAK
38. ARDIA ETA OTSOA. ZUBIETAKO PREGON EGUNA
39. HILEROKOARI BURUZKO XEHETASUN BATZU
40. IKASTOLAK ETA ESKOLA PUBLIKO BAKARRA, ESKOLA NAZIONALA.
41. DELTZA - DAMA BIDAIARIA.
42. KULTUR ASTE BAT
44. EUSKARA ETA DESNORTASUN ARAZOA NAFARROAN
46. ARTZAI BUKOLIKOA

ARGIAN EGINA

Laguntzaileak:
Nafarroako Gobernua,
Kultura eta Heziketa Saila.
«Principe de Viana».
Udalak: Beintza-Labaien,
Donamaria, Oitz eta Urrotz.

Nolabait ere, laguntzen dute:
Bera, Lesaka, Etxalar,
Sunbilla, Zubieta, Bertizaranako
Udalak.
Baita ere Gure Txokoa Elkartea, Eroski,
«Caja de Ahorros de Navarra»,
Lankide Aurrezki Kutxa eta
«Banco Hispano Americano».



BAUTISTA MADARIAGA BERTSOLARIARI OMENALDIA

ARANTZA

Aurtengo Arantzako aste kulturalaren barnean antolaturik ktoetariko bat Madariaga ohoretan omenaldia an da hain zuzen ere.

Jakina denez, Nafarroako bertsolarien Erakun-eak urtero bertsolari bati omenaldia egiteko ohi-ıra badu eta oraingoan Bautistak izan du eskubide ta ohore hori. Bautista Madariaga, «INARBU-U», duela hirurogei urte sortu zen Arantzako Iutikobordan deritzan baserrian. Bertsoetarako aletasuna bere atautxi zenarengandik etorri omen tzaion bera izan zuelarik maisu. Lehendabiziko ndearteko probak «Toberatan» eta «Santaktan» gin bide zituen, ezkongai zeuden neskatx gazteen xeetara ere joaten zelarik pregoi egunean bertako roa bertsoz alaitzera. Soldaduxka egin ondoren, rantzian hainbat urte ohiangintzan lan egin be-arrean aurkitu zen, atsedenaldia hartzen zuten akoitzean bertsotan ihardutzen zuen nolapait be-lagun eta, alaitzeko.1960. urtean lehen aldiz pla-aratua Nafarroako bertsolari txapelketan, 1961garreneko lehiaketen txapela eskuratu zuela-rik. Ondorengo urteetan antolaturiko txapelketetan ere parte hartu zuen, 1965.urte arte. Tarteko etena iragan ondoren, berriro ere antolatzen hasi ziren duela bostpasei urte Nafarroan txapelketa.

Bautista azkeneko lauetan parte hartu du, hirutan azken saiora iritxiz. Esan dezakegu, Perurena Goizuetarra eta biek direla lehen garaiko Nafarroako bertsolari txapelketetan eta oraingotan parte hartu duten bakarrak.

Bautista Madariaga bertsolari zaharren eskolakoa dugu, hau da: etorrera handikoa eta gai barregarriak gustoko dituena. Hainbat herritan ihardu-na da bertsotan, batez ere, Narbarte zena eta bere lagun diren bertsolariak.

Egun handi hori ospatzeko bildu ziren Arantzan Nafarroako bertsolari gehienak. Oroigarriak ere jaso zituen: bertsolarien erakundeak, Arantzako Udalak, Ekaitz elkarteak, e.a. emandakoak.

Hona ondoren, eskertzeko, Madariagak jarrita-ko bi bertso:

Mundura sortu eta niretzat
Hau zan egun bakarra,
Eta derrigor aurkitzen da
danoi aitortu beharra.
Nere artean portatu dana
Hemen gaztedi jatorra,
beste penarik ez det herriakin
ni naiz zorrez hil beharra.

Leno dirurikan aurreratu ez
lanetik behar berdindu,
urteetan ere gora nihoa
gorputzak berriz ezin du.
lanean ni berriro ere bai
egingo naiz ahalegindu,
gaur zuen mende horretan nago
nahi dezutena agindu.

PATXI

IGANTZI

IGANTZIKO UDALETXEA TELEBISTAREN AURKA

1.984-ko Maiatzaren 9-an Igantziko Udaletxeak herrian antena bat jartzea onartu zuen, Euskal Telebista eta TVE-ren 2. katea ikusteko. Gazte talde bat eta hiru kontzejalak Lesakako Eneterreaga jaunarekin argia eramateko eta errepetidorea jartzeko lanean hasi ziren. Lehendabiziko probak Irailan egin ziren eta nahiko ongi ikusten zen; hortik aintzinera herriko etxe guztiak antena jarri zuten eta hiru kateak ikusten hasi ziren.

Orduan, Arantzako herriak ere Telebista ikusi nahi zuela adierazi zuen eta antena hori nahiko eskasa zela ikusirik, handiagoa jartzea onartu zen.

Maiatzaren 10-ean izandako batzarre nagusian, Eneterreagak ekarritako faktura Udaletxeak etzuen onartu, esanez: «El Ayuntamiento no tiene oficialmente constancia alguna de la colocacion del repetidor en Frain, por lo que se rechaza la factura».

Hori duk hori, aurpegia edo muturra. Heuren etxean Telebista ikusten eta herrian antenarik badela konstantziarik ez dutela esaten. Jose Mª Sainz, alkate jaunak ez du lotsarik beti euskararen aurka. Elkarteak euskaraz sartzen dituen mozioak bilinguez sartzeko esaten du.

Ttipi-Ttapa eta beste Euskal Kulturaren alde ari diren taldeak laguntza eskatzen dutenean ukatu egiten die edo bestela gai hauek ez dira ukitzen.

Herrira garai obeak etorri arte itxoinen dugu, edo bestela «ministro» honeri gogor jokatu beharko diogu.

ITUREN

korrika

TRINITATE EGUNA ETA KORRIKA.

Ekainaren bian, igande egunarekin, Mendaurren erromeri ederra ospatu zen. Urtero bezala, inguruko herrietako jendea mendi tontorrera igo eta bildu egiten da. Han ziren Sunbilla, Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Zubieta, Goizueta, Igantzi, Arantza eta beste hainbat herrietakoak.

Lehen, pistarik ez zegoen eta denak oinez igotzen ziren, orain enbalstearaino kotxez igo daitekenez gero, ba... enbaltse inguruak kotxez beterik. Hau da martxa hau!

Mendaur puntan Trinitateko ermita dago eta punta honetatik izugarrizko bistak daude. 1.525. urtean Iturengo Maria, sorginkeriak egiteagatik akusatua izan omen zen, nonbait akelarreak edo antzeko batzarrak egiten omen ziren tontor horretan. Dena dela, behin puntan egonez gero, ermitari hiru buelta ematen zaizkio eta harri kozkorrez kanpaiari jo, horrela deseo dezuna betetzen omen da. Batzuk, "nobio-nobia" eskatzen aritzen dira, beste batzuk hiru buelta eman beharrean bat ematen diote, horrela "nobio-nobia"rik gabe, lagun on bat izatearekin konformatuko liratekeela adieraziz edo... en fin.

Eguerdian, ermitaren azpikaldeko zelaian, soinua izaten da, dantza egiteko aldrebes xamar dago, malda pizka bat eta horrela, baina tira! aritu aritzen da jendea.

Bazkaltzera, gehientsuenak bederen enbaltsera jeisten dira. Hor, taldeka jendea bildu eta egun on bat pasatzeko aukera izaten da. Gero, malda behetti abiatzeko orduan komedik izaten dira, soberasko edan eta zialdoka, ez da nahi orduko Aurtizen sartzen.

Aurten, Trinitate Eguna KORRIKArekin batera suertatu zen. Mendaur tontorrean ere horren seinaleak egon ziren, hala ikurrina bat "Herri bat hizkuntza bat" zioena eta Artzeren poesia batekin pankarta eder bat.

Mendaurtik buelta egin ondoren, Itundarrak KORRIKAren testigua Aurtizen hartu zuten. Bertze urtetan, ohitura denez Mendaurtik bueltan datozenak zortziko dantzatuz sartzen dira Iturenen; aurten, KORRIKA-KORRIKA eginez eta erranez sartu ziren, herriko plazan jende aunitz, besta giroan, baina zai, testigua hartu eta aurrera eramateko.

LESAKA

LAMINAZIOETAKO BERRIAK

Apirilaren 23-an Asamblada orokorra ospatu zen Lesakako laminazioetan. Oraingoan Komiteko talde guztiak, (ELA-k 15 ordezkari ditu, LAB-ek 4, Ezkerra Batuak 4 eta CC.OO-ek 2) ados egondu ziren deialdi hau agiterakoan.

Aspalditik, LAB eta Ezkerra Batuak Asanblada baten beharra agertzen zuten Komiteak egin dituen bileretan. Azaltzen zuten arrazoia zera zen, Enpresa, pixkanaka, pixkanaka bere aldetik birmoldaketa planak aurrera eramaten ari zela eta komiteak etzuela ezer egiten eraso hau gelditzeko.

patutako talde hauek.

Eztabaida luze baten ondoren talde bakoitzak bere proposamenak egin zizkioten Asanbladari:

ELAren proposamena hau izan zen: Enpresarengana joan, informazioa eskatu, eta ez baldin badu kasurik egiten, hilabete edo hilabete-terdi barru, beste asanblada bat egin.

LABena berriz hau izandu zen: Enpresari eskatu ez dezela aurrera eraman birmoldaketa, bere planak Komiteari azaldu arte.

Ezkerra Batuak bere proposamena hiru puntutan oinarritu zuen: 1) Lanpostuak ez galtzeko jokaera bat hartu, ordu extrak sartu beharrean, langabe dagoen jendea sartuz fabrikara. 2) Lesakako fabriketatik langilerik ez mugitzea A.H.V.ek Bilbon dituen fabriketara. 3) Lesakako lantegietan Enpresa eramaten ari den mobilitatea

du. Kaleraztze hauek jubilazioen bidez egingo direla erraten du, baina bertze bide batzu ere ez ditu baztertzen. Enpresa Madriden UGT eta CC.OO.-ekin, negoziaketetan ari omen da baina hemen ez digu ezer erran nahi.

LESAKAKO UDALAREN BERRIAK

Lesakako udalak "Nafarroako Bertsolarien Lagunak" izeneko elkartearen bazkide izatea erabaki du. Horretarako urtero 5.000 pzta. ordaintzeko konpromezua hartu duelarik. Nafarroan, bertsolaritza bultzatzea, da jaio berri den elakarte honen helburua.

Zabor bilketa zerbitzuaren tasa: aurtengoz, zerbitzu honen lanak 900.000 pezetatan adjudikatu ziren.



-Langile mordoska bildu zen Asanblada honetara eta gutti gora beherą eta laburki, azaldu ziren iritziak hauek izandu ziren:

Azken denbora honetan Enpresak Komiteari ez diola kasurik egiten adierazten zuten ELAkoek.

Beste taldeek berriz, batez ere LAB eta Ezkerra Batuaren aldetik, ELAK komitean eraman duen jokaera sindikala salatu zuten, Enpresak langileen aurka eramaten ari den erasoari ez bait dio gogor egin. Enpresaren jokaera hau, ELAren politika sindikala horren ondorio bezela agertzen zuten aigeldieraztea.

Proposamen hauek denak onhartuak izan ziren, eskua altxatuz egindako botazioetan.

Hilabete eta gehiago igaro da Asanblada hau ospatu ezkero, eta orain arte Enpresak ez du berririk eman.

Azkeneko egun hauetan Komitea agiri batekin egin da, ez Enpresak emana baizik eta Bilbotik bidalia. Agiri honek 1.985-tik hasi eta 1.990-rainoko birmoldaketa planak agertzen ditu. Zeatzki, Lesakako Laminazioetan, 1.985-rako 203 langile kaleratzeko proposamena agertzen

Beraz, ihaz baino 120.000 pzta. garestiago. Hau ikusirik, udalak tasen prezioa goratzea erabaki du dagokion 6-ko horretan.

1.985eko presupuestoa: diru kontutan segitzeko hona hemen udalak onartu duen urte honetako presupuestuaren datuak. Diru sarreraren kopurua 67.423.918 pezetatakoa izanen da. Irteerak berriz, 67.418.015 pezetatara ailegatzen direlarik.

Komunalak: komunalen arazoa dela eta Udal Gorporazioko batzuk

elkarrizketatu ziren Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Ganadutza eta Mendiko Kontseilariarekin. Honen ondorioz Lesakako Udalak Nafar-Gobernuari «Catastro de Riqueza Rustica» delako horren berri eskatzea erabaki du. Arazo honi irtenbide bat emateko, eraiki berria den «Negociado de Comunales»i laguntza handiena eskatzen zaio.

Loteak: erretzeko egurra edo loteak banatu behar direla eta akordio hauek hartu dituzte udalan:

-Akerregi eta Alkaiaga izeneko lekuetatik ateriko da egurra.

-Eskatzaile bakoitzari 3 tonelada egur, gutxi gora behera emanen zaio.

-Egurra eraman duten guztiek, auzolan egiteko betebeharra izanen dute.

DOAZELA BEINGOAN!! Aste Santuan, mozkortuta, beren pislolekin, jendea beldurtzen ibili ziren Lesakako ostatuetan. Baita ondoren bertze egun batean, karnetak eskatzen ibili ziren. Jendeak, ia nazkatuta, bilera bat egitera deia zabaldu zuten kartela batzu paratuz. «Gure zaintzaile» hauek egunez egun eta jendearen aurrean kartelak autsi zituzten. Azkenean udalak ere ekintza hauek salatu zituen.

ETB HOBE HARTZEKO ANTENA BERRIA. Lesakako Udalak egin duen bat-arre batean Euskal Telebista hobe hartzeko antenaren gaia berriz aipatu du. Arazoa eztabaidatu ondoren, Frain mendian antena berria jartzea erabaki du. Joxe Mari Eneterreagak presentatutako presupuestoa onartu eta honen arabera antena berria, gaur egun dagoena baino askoz indartsuagoa izango da.

JAI ASKO LESAKAN. Jai anitz asmatu dira autengo Lesakan. Orain aipatu behar ditugunak, batzuk ospatuak eta besteak egin beharrak. Lesakako Udalak bere Kultur Taldearen bitartez saio berezi batzu prestatu ditu. Saio berezi bat Maiatzaren 25ean ospatu zen: jende asko eta giro politaz Korrikaren alde gaupasa bat izandu zen Lesakako pilota leku zaharrean. Biharamunean, Maiatzak 26 Nafarroako Ikastolaren eguna ospatu zen. Tantirumairu Ikastolak antolatu eta jende asko etorri zen. Goizetik musika taldeak kalez kale ubili zitzaizkigun eta eguerdian autobusak agertzen hasi ziren. Eguerdiko ordu terdietan Eroskiko zelaietan bazkari batean elkartu ziren denak eta arratsaldean joko ugari izandu ziren denentzat.

Beste ospakizun hauek ere izan ditugu baita ere, alde batetik jubilatuaren eguna: meza koralarekin, banda, ezpatadantzariak, bertsolariak eta bazkaria galanta.

Baita ere aurten Eskadiko Marmitako Txapelketa ospatuko da. Dakigunez hirurogei talde eta elkarte izena emana dute baina oraingoz ez dakigu gehiago. Horrengo TTipi TTapan zerbair gehiago aipatuko dugu.

Hauetik kanpora gainean ditugu aurtengo San Ferminak, jai nagusiak, dagoeneko painulo gorria prest daukagu.

Ekainaren 9an Izokinaren Eguna ospatu zen. Kofrade berriak autatu ziren besta honetan, haien artean Gilermo Agara, lesakarra. Aipagarria da, herrian egun hau ospatzen zen bitartean, Laminazionesek berriro erreka erre zuela, azidoak ixuriz, amurrainak zorro goiti joan zirelarik. 80.000 izokikume Nafar Gobernuak eta beste 1.000 Irungo Bidasoako Lagunek, Bidasoako uretan bota dituzte.

BERA

MAIATZAREN LEHENEAN PINTADAK AGERTU. Azken urte hauetan, bertze leku anitzetan bezala, krisialdiak gogor zigortu du Berako herria. Begi bistan baitago zenbat fabrika itxi egin diren. Egoera honen ondorioak batez ere gazteek jasan behar izan dutelarik. Ikasketak bukatu eta lehendabiziko lana aurkitzeko, mila oztopo.

Maiatzaren lehena zela eta herrian zehar pintadak agertu dire: "langabeziarik ez", "gazte bat, lanpostu bat" eta bertze batzuk. Hurrengo egunetan letra batzu estalirik agertu ziren.

UDAL IRAZTEGIAK. 10 partzela banatu behar eta eskale anitz egertu dire. Orain banaketa nola egin, UKDALAREN ESKUETAN DAGO.

HIRIGINTZA IBARDINAN. Ibardin mendi lepo bat izatetik, urte batzutan herri bat izatera ailetu da. Honela bada, aspalditik espaloiak, urbideak, argiak, seinaleak, etab. behar zituen, rhonetarako Diputazioak laguntza eskeini du eta kantinero bakoitzak 300.000 pzta. paratu du. UCDALAK 31.000.000-ekin parte hartzen duelarik.

OSASUN ZENTROA. Osasun zentroan zorrak direla eta, arkitektu, aparailari eta etxegileak, lekua izteko mehatxua egin dute. Udalak dio bere egunean Diputazioak dena ordaintzeko konpromezua hartu zuela. Urralburu jaunarekin hitzegitea erabaki du Udalak eta hilabete bateen barruan zorrak ordainduko direla erran du.

ZABORTEGI BERRIAK, NONNAHI. Udaberriaz gozatzera, pasitzera ateri eta, lore eta zuhaitz ederrak ikusi beharrean, toki polit anitz zikindurik ikusi ditugu. Horrela, Alkaiagatik Zalain Zokora, trenbide bazterrean. Bezerroko iturriaren burbilean handitzen ari den zabortegia, bere usain eta guzti.

BORTZIRITAKO LAGUNTZAILE SOZIALAK. Apirila ezkeroztik badugu laguntzaile sozial bat. Honeri laguntzeko, geriatrian espezializatuak bertze bi behar dire eta laister lanean hasiko dire. Hauen lana, eriak eta zaharrak bere etxeetan zaintzea izango da. Diputazioak aurrekontu honen 75 ordainduko du eta gainerakoa Udalen kontura izango da. Gero eta beharrez-

BERAN LANTOKIAK UGARITZEN. Leku anitzetan lantokiak itxitzen ari diren bitartean, hemen nabe berriak egiten. Bai, Alco eta Armarren tartean diren lurretan Miguel Martinezek, eta Gurea ondoan, Marixkonekoak eta Rudik, lantokiak prestatzen ari dire.

Ia zenbat lanpostu berri sortzen dituzten, denen beharra izanen da, hainbeste jende lanarik gabe badago eta.

koak izango ditugu horrelako zerbitzuak ikusirik batez ere jende adintsu anitz badagoela, adibidez Beran 65 uRetik goiti, 300 eta gehiago lagun badire.

FORMAZIO PROFESIONALEAN 2. MAILA EZARRI BERAN. Aurtengo irailean hasiko den ikastaroan Formazio Profesionaleko bigarren maila ezarriko da Berako Eskola Profesionalean, horrela gestio informatika eta elekt-omekanika ikasteko aukera eskainiko delarik.

Berako eta Bidasoa inguruko gazteek 14-19 urte arteko F.Pa bertan egin ahal izango dute plangintza berri hau dela medio, aukeratutako adarreko tekniko espezialista titulua lortuz. Gestio informatikako ikasketak burutu ondoren, estadistika eta empresa eskola unibertsitarietara zuzen zuzenean igarotzea posible da. Elektromekanika ikasketak eginez, berriz, injenieria eskoletara pasa daiteke.

FPko lehenengo mailan hasitzeko 14 urte izatea eta OHOko ikasketa zertifikatua edukitzea beharrezkoa da. FP2.mailan sartu ahal izateko, FP1a gainditua izatea -edo BUPeko baliakidea erakustea- ezin bestekoak ditugu.

Izen ematea ekainaren 15erarte dago zabalik. Inpresoak, Eskolan bertan edota Bera, Lesaka, Donezteben eta OHOko gainontzeko ikastetxeetan eskura daude. Bestalde, matrikula epea ekainaren 25ean irekiko da.

MAIATZAREN 23an, FUNDICIONES DE VERA, S.A. izeneko lantokian, Donato Harribilaga 63 urteko langilea itsaizura bat konpontzen ari zela, teilatua erori eta bertan hila geratu zen. Lanean lehenbiziko zera da bizia zaintzea eta osasuna mantentzea beraz ziurtasun osoa behar dugu lanean jarraitzeko eta horrelakoak ez daitezen gerta.

MAIXUEN GREBA

Gu, Berako Eskola Publikoko, Batzorde Zuzendarian, besteen izenean gauden gurasoek, eskola honetako irakasleek egin duten grebari buruzko iritzia adierazi nahi dizuegu.

Grebara bultzatu dituzten arrazoiak bidezkoak ikusten ditugu, klaustrak zatitu eta militarizatuta izatea ez baita inoren onerako.

Gurasoak gure semeen heziketa orokorra nahi dugu; honetarako guraso, irakasle eta ikasleen arteko harremanak onak izan behar dute. Gobernuak ezarri nahi duen Sistema Gerarkikoak hautsi lezake gaur egun gure artean dagoen harrenana.

Hau da, maila (edo klase) ezberdinak ezarriko balira, hauen artean dirua eta mailaz igotzeko borroka sortuko litzateke, honal orain dagoen talde giroa hautsiz.

Beste puntua, jubilazioa da, ongi ikusten dugu 60 urte betatakoan, soldataren 100 kobratuz, lanari uztea, maisuak ezezik beste langile guztiak ere. Gainera, hau lehen bait lehen jarru beharko litzateke, honela hain kezkagarri zaigun langabezia gutxi dadin.

Bukatzeko, Gobernuak, Ministeritzak edo beste edonork honelako edo bestelako erabakia hartu aintzinetik isilean eta gordeka prestatu eta onartu beharrean, interesaturik dauden giza mailak kasu honetan guraso, irakasle eta ikasleei kontsultatzea eskatzen dugu.

Berako Eskola Publikoko Guraso Ordezkariak.

GURE TXOKOA ELKARTEAK ANTOLATUTA, LEHENGO BIDASOAKO BERTSO PAPER LE HIAKETA.

Bai, 25 bertso paper hartu dire, hauetatik 17, hamalau urte artekoak, 3 hamalau-hamasei urte artekoak eta hamaseitik aintzinera 5. Parte hartzaile gehienak irundarrak dira, lesakar batzu,oiartzuar batzu eta beratar bat ere. Epaimahiakoak Aburuza, Taberna, Mendizabal eta Urroz dire. 35.000 pzten. sariak honela banatu dituzte:

Adinduetan:
lehen saria -Patxi Larretxea Lazkano (Arantza)
bigarren saria -Xanti Zabala «Lexo» (Irun)

14 urtetatik 16 bitartekoetan:
lehen saria -Pello Otxoteko Bakero (Irun)
bigarren saria - hutsuna

14 urtetik gaztegoetan:
lehen saria -Karlos Aizpurua (Oiartzun)
bigarren saria -Eztitxu Otxoteko Bakero (Irun)

2 sari berezi:
lehenengoa -Juan Manuel Arozena (Lesaka)
bigarrena -Jose Juan Lanz Apeztegia (Bera)

KULTUR ASTEA. Aurten, Gure Txokoa Elkarteak beste gauzen artean eta urtean zehar, zenbait ekintza antolatu, burutu eta bultzatu izan ditu. Dudarik gabe, zerbait egin bada ere, ez da guk nahi genukeen adina, izan ere gure asmoa, dinamika gehiago edukitzea eta ondorioz ekintza gehiago antolatzea bait litzateke.

Lehen erran bezala, Gure Txokoa Elkarteak kultur egun batzuk antolatu ditu herrian. Horretarako deia zabaldu genuen proiektu hau ahal zen jende gehienen artean antolatzeko, eta egia erran, ez genuen guk nahi eta espero genuen erantzuna hartu. Herri mailan agitz jende guttik hartu zuen parte antolaketa honetan. bakarrik Berako eskoletako gurasoen elkarteak izan genituen lanerako prest agertu ziren talde bakarrak.

Hala ere, kultur egun haiek aintzinera ateratzea lortu genuen. Bertyze gauzen artean egitarau hauek aipa ditzazkegu:

.Tasio eta Akelarre filmeak euskaraz
.Javier Perez de Azpeitia beratarraren piano saioa.
.Juan Larramendiren margo erakusketa.
.Sabel taldekoek eman zituen antzerki saioak.
.Benito Lertxundiren kantaldia.
.Iruñeako «Coral de Camara» deitzen den taldea.
.Haurren Eguna: herri jokoak, Xauli pailazoak, txokolatea, lasterketa etab.

Antolaketak alde batera utzita, bertze arazo bat ere agertu nahi genuen hemen. Noski, hemen azalzen diren guztiak ez dute denentzat balioko, baina bai bai gehien batentzat. Zera da: ekintzak antolatuta ere, dena egina emanda ere, jendea ez dela entzutera ere joaten. Eta hori, zerbait tristea da. Gero hor ibiliko gara hitzetik hitzera eta kale eskinetan, herrian arazo pila bat daude zabaltzen, baina guk ez dugu ezta informatzeko konpromisorik ere hartu nahi.

Eta guzti hau erraten dugu azken osasun zentro berriaren proiektuari buruzko hitzaldian gertatu zenagatik: bilera batera deitu eta jende gutti bertan. orrelako arazo baten aurrean era honetan «pasatzea» ez da normala.

Gure ustez jokabidez zeharo aldatu beharko dugu gure herrian nolabateko lan giro eta kultur kezka sortu nahi badugu.

Nolanahi ere ez dezala jendea atzeratzeko eta aserratzeko balio, animatzeko eta lan dinamikan sartzeko baizik.

Gure herriak denon laguntza eta bultzada behar duela uste dugu eta ia denon artean kontzientzi minimo bat lortzen dugu.

GURE TXOKOAKO KULTUR ASTE SAILA

BAZTAN

HERRITARRAK BESTAZ BESTA ETA LANEAN.

Baztan aldean herriko bestei hasiera eman diote. Iruritarrak izan dira beti bezala lehenak eta Gartzaindarrak berriz, azaroan, Sanmartinetan amaiera emanen diotenak.

IRURITAN MULTZOKA BILDU ZEN JENDEA ETA BETI BEZALA EURIAK BERE JOKADA EGIN ZUEN.

Mozorroak, antzerki, kirolak, zikiro jatea, dantzaldi ederra... denetik izan zen. Giro ederra eta humore onean joan ziren egunak. Herri hauetako ohitura den bezala gazteak egin zuten presupuestoak eta beste lan asko. Diru kezkarik ez izateko berriz, ostatu bat paratu zuten.

ZORIONAK LAN ETA BESTA LOTU ZUTEN GUZTIEI.

Eta, ea beste herrietako gazteak ere bide onetatik, jarraitzen duten, bestela bestak berea egindu; bederen Udalak ez badu bere kontura hartzen.

IKASTOLAREN ARAZOA KONPONDU GABE.

Baztango ikastola azken urte hauetan izugarrizko lanak egiten ari da udalaren bidez Diputazioaren laguntza lortzeko.

Ikastexe hau munizipala denez gero, Diputaziorako eskaerak Udalaren bidez egin beharko litezke baina gurasoen ustez, Baztango Udalak ez du hortarako gogo handirik eta oztopoak besterik ez du paratzen.

Badirudi zerbait egiten hari direla baina ez!, ikastola adierazi duenez aferak oraindik erabaki gabe daude.

Beste aldetik, «El Pilar» deitzen den ikastetxea erostea erabaki bada, gurasoek hamairu miloiko laguntza eskeini dutelako da. Ikastetxe hori 60 miloi kostatzen da eta Udalarena izanen litzeke 12 miloi bere kontutik ordainduz gero, beste guztia (ikastolako gurasoenaz aparte) Diputazioneak emango bait luke. Hau dena honela da, baina gauzak geldi daude. Horrela nabari da zer gogo eta asmoak dituen Udal honek Ikastolaren alde jokatzeko.

Eta oraindik, «Union baztanesa»ko zinegotziak «mar-mar» aritzeko badute muturra; baserritarrei eta «gizaixo» diren jaun batzuei, ikastola erosteak kontribuzioneak goratzea besterik ekarriko ez duela esanaz. Harrigarria! Ez dago besterik eta, mendiko bideak konpontzen bakarrik Udalak 15 miloi bota bait ditu. Ez ote dira pesta berak? Zer uste dute, Baztango Udalak 222 miloiko presupuestoarekin ez duela ikastolaren asuntua besterik kontribuzioa goratzeko?

Jaunak, zurikeritan aritu nahi baduzue aski da, mintza aurrez aurre eta ez gibeletik, badauzkagu gauza aunitz argitu beharrak eta.

XORROXIN IRRATIA BERRIZ ERE.. MARTXAN

Elizondon eta orain dela hilabete batzuk Xorroxin irratia lanean ari dela. Baztan inguru hauetan ongi entzuten da eta horretaz gai entzule aunitz bildu ditu bere saioen ondora. Goizeko hamabietan ematen dio hasiera eta gaueko hamabietan amaiera. Dena euskara utsean egiten da eta herriko berriak, elkarrizketak, bertsolaritza, nekazaritza, sukaldaritza, osasuntza eta abar dira saio eratuenak. Jendeak pozik hartu du honelako lana eta euskaldun gazteak dira hain zuzen ere gehien aritzen direnak. Hain herrikoia izanik, betikoak agertu gabe ezin egon eta etorriz gainera itxi nahi zuten baina ez dute lortu.

Jarrai dezala Xorroxin irratiak, baztandarrak eta euskara izanen dira irabazleak.

BAZTANGO «JUNTA GENERAL»AREN BATZORDEAK BILERA GOGORRAK.

Bai, kriston zalapartak izan dituzte. Elizondoko alkatea izateko nor erabaki behar zuen izateko. Eta gertatzen da herriko alkateak herriak autatzen dituela eta ez Juntak. Beraz, bileran zalapartak baziren, Udaletxepean ez ziren guttiago izan. Atean, larehun bat jende bildu zen oihukatzera; Iturralde jaunak, baita «indarrak» eskatu eta non azaltzen diren larogei guardia civil, harrituak!

Bi egun pasa eta gero, Junta hau bildu eta «suspendido» deitzen den erabakia hartuz, etxera abiatu ziren; baina aurretik zenbat iskanbila, bulketa, bortxaketa, eta beste modalitateko borrokak egin ziren. Egun hortan aspaldi lortu ez zena lortu bait zen, hau da, Udaletxean sartzea. Eta esan behar da Baztandar aunitzek lortu zuela, gutxienez urte bat badarama alkate jaunak bere bilerak atea itxiz egiten. Egun hortan gizaxoa! ezin guztiei agurtu.

ELIZONDON SORTU DEN PEDIATRIAKO ZERBITZUARI KRITIKA GOGORRAK.

Baztan-Bidasoako Osasun Publikoaren defentsarako koordinakundeak komunikatu baten bidez hau adieraztera eman du: Insalud-ek Elizondon sortu duen pediatriako serbitzua ezin dela onartu, partxe bat besterik ez delako.

Hau da, Zerbitzu hau sortzerakoan ez baitu kontutan hartu Nafarroako Gobernoaren egitamoa, ezta herritarrei, sanitarioen eta polikoen ordezkariei ere horren berri emean. Zerbitzu hau inongo aldez aurreko estudiorik gabe egin baita.

Zerbitzu horretara, Elizondo bertakoek bakarrik joateko eskubidea dute. Beraz, horrela jokatzeak alde batetik inguru hortako bizilagunak berezi besterik ez du egiten eta bestetik sanitarioak bakoitza bere aldetik ibiltzea bultzatzen du. Kasu honetan, esate baterako Elizondoko medikuari pedriatriako egin beharragatik ordaintzen zitzaiona, orain, jornaletik kendu egiten zaio. Horrelako giro eta egoeratan zerbitzu hau paratzea ez da inorentzat mesedegarri aldiz porrot egitera joanen dela diote koordinakundekoek.

Horretaz gain, bertako medikuek zerbit- u berri hau boikoteatu egiten dute. Alde batetik 24 orduz lan egiteko prest egon dadila eskatuz eta bestetik, larrialdiko sistematik kanpo utziz.

Hau dela eta, zerbitzu honen kreazioa joku politikoa besterik ez dela pentsatzen da.

Osasun Publikoaren Defentsarako Kordinakunde honen iritziz, zerbitzu hau beharreakoa da. Baina ez inposatu zaigun bezala baizik eta lehen mailako Osasun laguntzaren planteamendu egokien barneko eraldaketa bezala.

Zerbitzu honetan, Pediat- iako zerbitzu honek beste edozein zerbitzu gisa, osasun arlo honetako, hau da Baztango bizilagun guztien, ardura eraman behar du eta horretaz gain osasun ekipo baten barnean egon. Horrela aberasgarriagoa izanen baita, hain zuzen sanitario heziketa arloan eta Osasunaren eragintzan.

Koordinakunde honek jarraitzen du esanez, "mediku titularrak, orain arte bezala bete beharko lukete osasun laguntzarako egin beharrak eta beharrezko kasutan, haur horiek Pediatrarengana bidali" retaz aparte zerbitzu horren beste egin beharrak ere aipatzen ditu; hala, eskolako haurren berrikustapena egitea eta urtean behin, aurrez ordua eman ondoren, alde hortako haur guztiena. Baita, bertako medikuei Pediatriako berriak jakin erazi eta eritziak batuz lanegin.

Eta, bukatzeko, hau diote:

"Hau aurrera erametea ez da zaila. Baina hortarako sanitate herritarra, osoa eta parte hartzailea izan behar du".

Osasunean parte hartzen has gaitezen!!!

ETXALAR

GOARTZIBILEN ETXE BERRIA DELA ETA

Azkenaldi honetan, Etxalarren daukagun kontagarriena, koartel berrirako proiektoaren ixtorioa da.

Martxoaren 21a. Udalaren bilera. Eta, bileran, eskari-papera, bederatzi bizitzako bi etxe egiteko baimena eskatuz, papera. Hamazortzi bizitzak goartzibilentzat. Eta, non eta, errepide ondoan, beheko landaren erdi parean. Eta, berehala, nola ez, eztabaida. Azkenean, alkateak baietza eman zuen. Gainekoek, Iruñeako «Comisión de Urbanismo» delakoari galdetzeko erabakia hartu zuten, ea zerbait kontrakorik edo kaltegarririk ote zuen proiektoak.

Hurrengo udal bileran, «Independiente« izenekoek koartelaren proiektoari baiezkoa eman diote; urbanismo komisioak dioenez, ez dela inongo oztoporik eta kaltegarririk ere. «Herri Taldea»ko zinegotzien ustez ordea, proiektoak, ez ditu errespetatzen herriko Udalak etxegintzarako paratutako arau edo ordenantzak. Hori alde batetik. Baina, eta hau garrantzitsuena , etxe hauek leku horretan egiteak, ingurukoei ekarriko dizkien kalteez gain, herri osoari ondorio txar haundiak ekartzen ahal dio: Estaduko legeen arauera, militarrek, bere etxe inguruan, hirurehun metrotaraino bereganatzen ahal omen dute. Lau «independienteek» botoa alde eman zuten; Herri Taldea-ko hiruek, aurka.

Bitartean, eta ondoren, jende frango kezkatzen hasi da. Legelariengana jo dutenak bat baino gehiago dira. Herrian, paperak hara hona ibili dira. Apirilaren 17an, Udalaren bilera berrian, hiru eskari paper aurkeztu dira, Udalak, koartel proiektoari emandako baietza, uka dezan eskatuz. Bat, aldameneko lurraren jabeak egina. Inguruko lur jabeena, bestea. Eta, hirugarrena, 120 herritarrek sinatua . Eskariaren arrazoi nagusiak, hauexek: 1. etxegintzan, goartzibilen eta herritarren artean udalak agertzen duen bereizkuntza, herritarrak gutxietsiz; 2. herriari datorkion kaltea, etxe horiek eginez, eta, berexiki, leku horretan eginez. «Independiententeen» taldeko bik, oraingoan ezezkoa eman dio proikto horri. Herri Taldekoek ere ezetza noski, lehen bezala. Bost ezezko behinpin, zazpien artean.

Eta orain, zer? Ikusi beharra. Arrazoiek ez dute balio batzutan, ez botoek ere. Eta legea egin eta haren defendatzaile direnak, berauek izaten bait dira maiz errespetatzen ez dutenak. Horregatik, ikusi beharra!

Lantegi berria

Txikia, mementuan bost langile besterik ez baitu. Baina bost lanpostu gehiago dira, eta ugarituko diren esperantza. Bazter guztietan lanpostu gutxitzearen kanta besterik entzuten ez den denbora honetan, gertakari bitxi eta ona da. Eta bitxi eta ona beste arrazoi batengatik ere: lantegi txiki hori kooperatiba modura antolatu omen da. Italiatik tresneria ekarri eta ikasi ere ikasten han ibiliak dira. Sortu berria denari, bizi luzea desiratzen diogu.

errepide - carretera
erabaki - decision
zinegotzi - concejal
garratzi - importancia
legelari - abogado
aurkeztu - presentar

KOARTELA ETXALARREN? EZ, ESKERRIK ASKO

Bai, bai, egia izanen da!. Egia da. Entzun dugu. Ikusi dugu. Koartel berriak egiten ari dira leku bat baino gehiagotan: Altsasu, Gares, Belagua.... Hondarrabian eta Beran ere eginak daude. Eta zihur nago bertze leku batzuetan ere egiteko asmoak dituztela. Behintzat nere Herrian agertu dute ia proiektoa. Bai!, Non? Ba, Etxelarren. Bost hirietako herri polit honetan.

Etxelarren «supercuartel» bat? Bai!, eta gainera sarreran, jende guztiaren bixta-bixtan. Ez zaie axola. Berdin zaie Etxalarko nekazariei izorratzea. Berdin zaie gure herriko landa-zelai ederrenetako bat puskatzea.«Pertsonaje» hauei berdin zaie dena. Aski dute«de utilidad publica» dela erratea eta egingo luteke bait herriko frontoian ere.

Baina, zer dio Etxalarko Herriak? Herriko jende gehienak ? eta zer dio Udalak?

Udalaren lehen hitza kuartelaren gain, BAI; izan zen. Baina, Herria aurka dutela konturatzen, itzuli egin dira, eta koartelari EZ erran diote (naiz eta «gure» alkatesa andreak beti koartelaren alde egin).

Momentuan, erran behar da, gure Udala denboraz itzuli dela. Noiz arte? Noiz arte diot zeren ageri da gure alkaldesak «debilitate» gogorra diola «uniformatu» hoiei eta gehiago oraindik«izar dutenak» baldin badira. Horregatik,«berde-uniformatu-izardun» hauek saiatzen ahal dira koartelaren proiektoa aurrera eramaten.

Alkaldesa eta Herriko bertze jauntxo batzu hau gerta dadin esperuan egongo dira.

Baina, gu ere, benetan, zai egongo horrelako proiektoaren aurka borrokatzeko.GU, Euskaldunok, GU,herriko abertzale finak. Eta ez gu bakarrik. Bost hirietako abertzaleak ere bai.

Euskal Herri guztiak oihukatzen du: KOARTELARIK EZ! ALDE HEMENDIK!



BEINTZA LABAIEN

Lehendabiziko aldiz, Beintza-Labaiengo berriren bat aterako da aldizkari honetan. Ezin dezaket zerbait esan gabe egon.

Mendi tartean, txoko batean sartua dago Labaien eta pixka bat ateragoa berriz Beintza. Zein polita dagoen orain, zuhaitzetan ostoa ateratzen hasi denean!

Herriko zaharrak zerbait ereiteko alorrak garbitzen ari dira; ezin dezaket erran zer poza hartzen dudan kozkor erre usain hori sumatzean.

Umetxoak berriz, karriketan jostatzen ikusten ditut. Beintza eta Labaiengo landa tartean dago umetxo hoien eskola. Baina, zer gertatzen da? Erdi botata dagoela. Neri esan didanez, hau gertatzen omen da: Estaduak dirua eman omen zuen laguntza bezala kanpotik pixka bat berritzeko. Diru hau Gil izeneko kontratista batek eskuratua omen zuen baina zerri bat izatea erresultatu omen da. Berarekin lan egiten zuten mutilei ordaindu gabe, diru guztia hartu eta alde egin omen du. Orain umeak etxe zahar batean sartuak daude, inolako goxotasunik gabe. Negu guztia hor pasa dute eta auskalo noiz arte egon beharko duten. Askotan bezala, gehinetan zoritxarrez, umeek pagatu behar haundien erruak.

Hauxe izan da, hasitzeko eta bukatzeko nere artikulotxoa.

Labaindar bat.

DONEZTEBE

Doneztebeko kultur astea.

Martxoaren 24 eta 30-en artean Donezteben lehenbiziko Kultur Astea izan zen.

«Mogida» hau, orain dela hiru edo lau hilabete baino lehenagotik zetorren. Herriko gazte talde bat elkartu ginen apaltzeko eta hortik atera zen ideia: jende guztiarentzat, gure herriarentzat zerbait animatzeko.

Hortik aurrera jarraitu genuen elkartzen, programa prestatzeko eta hainbertze neke ondoren nahiko osatua geratu zitzaigun.

Bi pelikula genituen, feministen hitzaldi bat, beste «Euskal Herrian Euskaraz»koena (hitzaldi horretatik atera zen KORRIKA prestatzeko talde bat). Gure TTIPI-TTAPAk izan zuen bere oportunitatea eta kontatu zigun bere kezkak. Fernando Merinok (Lesakar soziologoa), Bidasoako ibarraren erreilatatea erakutsi zigun bere hitzaldi interesgarrian.

Udaletxean hiru egunetan zehar erakusketa polit bat ere izan zen, zera: Doneztebeko margolariek zintzilikatu zituzten bere koadroak. Larunbatean berriz, «gehiegi», Sebastopoleko Titiriteroak, antzerki taldearekin. Hauek, gure kaleak musikaz, fantasiaz eta ikaraldi batzuez bete bait zituzten.

Igandean hemengo artisauak erakutsi ziguten bere esku miragarriez egiten dakitena. Bi iruñear marrazkilari ere etorri ziren eta gure begi dibertituen aurrean marraztu zuten komiki handi bat.

Gero, festaren bukaera bezala, herri bazkaria, trikitixa eta bertsolariak izan genituen.

Ondo pasatu genuen eta datorren urtean gauza bera egiteko gogoa geratu zitzaigun. Baietz! Dena dela, mugimendu hau egin ondoren, batzuk ez dutela erantzunik eman iruditzen zait.

Baina, hoberena hau da; gurea bezalako herri bat mugitu dugula kultur astearekin eta honelako «mobida» egiteko elkartzea eta ibiltzea beharrezkoa da.

Aste osoan irrati emisora bat izan genuen, «Doneztebeko Irratia». Horretan egunero emititu zen eta libreki mintzatu zen, airean zehar, (alkate jauna, eskolako umeak, edonor). Denok izan genuen mintzatzeko oportunitatea eta Doneztebeko zoko guztietara ailegatzeko.

ZEUTATIK

Lehatz freskoak ematen dio
arrain zopari grazia
kapoi onena gisa berean
etxe ondoan hazia.
Eguerdi honetan ez dugu jango
ez bata ezta bestia.
Elkartasunak beteko digu
sabel barneko faltia.

Bizkaia aldetik, Nafarroatik
baita ere Gipuzkoatik
bildu gaituzte moro tartera
lurrez eta itsasotik.
Begi tristekin ibiltzen gara
Zeuta aldeko kaletatik
bide berdinez alde egingo dugu
herbeste honetatik.

Afrikan nago itsas ertzean
untzi zuria so egiten.
Beste aldean, Peñoi zuriak
ia zerua du ikutzen
kai zaharretik lasai irten da
ur ezberdinek zapaltzen
ikusiko naute egunen batean
nola naizen etxeratzen.

Ama, semeak kantatzen dizu
bihotzetik asmatua.
Urruti zaude, beste ertzean
itsasoak banatua.
Nire abotsak indarrik badu
entzungo duzu mezua.
Barnetik dizut laister naizela
guztiokin elkartua.

Urriaren egun bat zen
egun baten uzkeria
egunkariak zekarren
ez da izango egia.
Izen batek sortu dezake
hainbeste harrokeria
I–en batek sortu dezake
hainbeste miseria.

Kainoiak, burdi ura
eta golde bihurturik
nekazari langileak
ongi giroturik.
Emango dizu lurrak
garia ta artoa
gaztaina sagardoa
eta ardoa nahikoa.

Bihotzean dudan mina
nahi dizuet kantatu
gelditzen zaidan indarra
ez baldin bazait bukatu.
Ezberdinak garelako
nahi gaituzte apurtu
zilarrezko iturria
ezingo dute agortu.

Egunero sentitzen dut
etxekoen beharra.
Derrigor maitatu behar
desiratutako lurra.
Maitasun honetan dago
behar dudan indarra.
Gaur ni eta bihar zu
buka ezineko gerra.

Euskal Herrian, mendi artean
aiten aitek kantatua
Hegi batean, zelai artean
hau da nere gazte lekua.
Izardi zaharrak, indar zintzoak
eta norbaitek sortua
menderik mende, bizi bizirik
laino tartean galdua.

Anai gaztea, etxe aurrean
zutik ari da negarrez
zakur txuriak zaunka diardu
anaia duelarik aurrez.
Atari ertzean, egun tartean
gorpu hila dago trabes
zutai zaharra, epai isila
zipristindua da odolez.

Aldegin dute, amak esan dit
arrokeriz eta barrez
esan diote berba gutxitan
hura ez zebilela legez.
Gaur goiza azkenengo eguna
izango zela derrigorrez
inguraturik fusil artean
ezin izan du egin ihes.

Agur sorterri, agur aberri
agur ai, lur maitea.
Agur Euskadi, Agur aberri
agur indarrez betea.
Ohostu dizute, zakur kumeek
sortu zenuen semea
itzuliko da laino artean
eternal abertzalea.

Hainbat gizaldi pasatu dira
bazter honetatik zehar
denak barnean pena berdina
Euskal Herriari negar.
Batzuk badoaz, besteak hemen
eta hainbat etortzear.
Elkartasunak emango digu
jarraitzeko nahiko indar.

Zeutan, soldaduska egiten
ari diren lagunen bertsoak.

Erasungo Matias Elizalderi jasoa.

Kantatutzera indar handiko
deseio batek narama
Juanita zuri
nahi dizut eman
merezia dezun fama
Zure probintzi Gipuzkoa
igualik gabeko dama
bedeinkatua izan dedila
zu egin zinduen ama.
Zerorrek uste etzenuela
egon nintzaizuen begira
lehendabiziko oinetara eta
hurrena berriz gerrira.
Oinak dituzu txiki politak
gustagarriak txit dira
gerrian berriz eman litzazke
kana bat zintak bi gira.
Ointxo politak gerria mia
graziak mila petxoan
lepo biribil dirudiena
egin berria tornuan.
Pare gabeko begi argiak
hile ederra buruan
zu baino aingeru politagorik
ez da izango zeruan.
Beti ariko naiz Jaunari eskaka
ongi izan zaitezela
etzazula uste nere bizian
zutaz ahaztuko naizela.
Esku muinak maiz bial nazkizu
orain artean bezala
hainbeste egin behar didazu
penaz hilko naiz bestela.

Besta haren oroimenak

Euskadi osoan, Herri Batasunak antolatutako kanpaina politikoa «Euskadi alaitsu eta borrokan kementsu», martxoaren 24ean bukatu zen.

Guk ere zerbait egin genuen: Bortziritako HBk antolatuta, martxoaren 23an, arratsaldeko 8tan, 70 gizon eta andre, zahar eta gazte, Beran, Altzateko kalean, txaranga baten soinuz kalejiran, ardoa edaten ibili ginen. Bederatzi t'erditan ehun eta berrogei andre eta gizon «Ricardo Baroja» eskola-konzentrazioan afari eder bat egin genuen.

Euskal Herriak denbora anitz borrokan darama: grebak, manifestapenak etabar. Egun honetan ere Berako herrian manifestazioa egin genuen. Baina ez eztarria puskatu arte oihuka baizik eta beste giro batean. Anitzek pentsatuko zuten egun horretan festa bakarrik buruan genuela, baina ez, Bortziritako eta Malderrekako jendearen burutan, langabezia, errepresioa, hilketak, errefuxiatuak... Euskal Herriko egoera larria zegoen.

Afaria arrunt ederra izan zen: ilar gorriak eta borobila saltsan; denetatik nahiko eta agitz ongi prestatua. Ondotik frutazko entsalada eta kafea kopa eta purua; janaria bukatzeko txanpaina.

Giro zoragarrian M40 karroza eta martxoso elkarturik. Karrozak pozik martxosoekin eta «viceversa». Dantzak ere izandu ziren: jotak, porrusaldak, zortzikoak; rock eta baltsetan ere ibili ginen. Bertsolari batek bi bertso bota zituen eta kanta kantari, hau adierazi zuen: nahiz etsaiak anitz izan, abertzaleak gora eta gora joango garela. I.Aldekoa mintzatu zen, gutxiegi baina euskaraz: nahiz eta besta egiten ari, presoak gure gogoan daudela, erran zuen; borroka luzea izango dela eta eratzeko beharra gero eta handiagoa dela. Inguru honetako abertzale guztiak, afaria ederki igaro genuen.

Humore on honen bihotza, Lesakako soinujotzaile gazteak izan ziren, denak saltoka, kantari eta dantzan jarri gintuztelako.

Berako herrian larunbata horretan ostatuetan bertze larunbatetan baino jende gehiago ibili zen. Leiho eta balkoietan jendea gure manifestapena begira egon zen; txaloak ere izan ziren, azkenean txakurrak ere dantzan jarri genituelarik, gehiegi!!!

AUPA¡¡¡..



BERTSOLARIEI BURUZ KRITIKA BAT

Nafarroako bertsolari txapelketa zela eta hurbildu ginen Leitzara.

Giro ederra hura! Frontoia beteta zegoen, asko poztu nintzen halako jendetza ikustean. Bertsolaritza indartzen ari da, pentsatu nuen.

Baina nere buruan zalantza handi bat dago eta azaldu nahi nuke. Beran, bai Erratzun egon nintzen bertsolariak ikusten eta dezepzionatua, haserra eta triste gelditu nintzen. Zergatik? Beraien gai nagusienetako bat emakumea da. Ez dira konturatzen edo ez dute konturatu nahi, gutaz esaten dutuzten gauza horiek mina egiten digutela. Etxean egoteko, gizonei atsegina edo plazerra emateko eta haurrak egiteko makina batzuk bezala ikusten gaituzte.

Uste nuen orain, gaur egun, bertsolariek beste pertsonamolde bat zutela.

Zer uste dute gizon hauek? Gu, emakumeok, pertsonak gara, pentsatzen dugu, sentutzen dugu, bakoitzak gure nortasuna dugu eta EZ GARA GIZONEN MENPEAN BIZITZEKO SORTUAK. Noiz aldatuko ote da hau? Gauzak aldatzen ari direla konturatzeko ordua da, ez gaudela XV-garren mendean.

Bertsolari bati komentatu nion hau noizbait eta jendeak entzun nahi duena kantatzen dutela esan zidan. Ba, badakit batzuk gustora egoten direla emakumea zapaltzen dituzten bertsoak entzuten, eta gazte batzuk ere (penagarria, ezta?). Eta beste jendea? Ia noiz konturatzen diren festetara eta afaritara deitzen dituen jende hori nor den. Ikustera eta entzutera joaten den jende haien artean gazte asko, bertsolaritzak jarraitzea eta indartzea nahi duen jendea da.

Bertsolariek konturatu behar lukete gazteria aldatzen ari dela, ez dela orain dela urte batzutako gazteri bera. Beste modu batera pentsatzen du, beste gauza batzuk dauzka buruan, beste behar batzuk ditu. Bertsolariek oraingo girora moldatu behar dute. Zuek esanen duzue: bai, baina, nola ulertuko du hori berrogei urteko bertsolari batek? Nik garbi daukat, ez dute esaten jendeak nahi duena kantatzen dutela? Ba, ireki ditzatela begiak, jendearen aurpegietan ikusten da zer nahi duen.

Baina ez pentsa, nahiz eta aserre egon orain, bertsolariak asko gustatzen zaizkit eta seguro berriro ere joanen naizela entzutera. Beharbada, hurrengo aldian ez dut hainbeste astakeri entzunen eta pozik aterako naiz.

Emakume bat

HERRI HAUNDITIK HERRI TTIKIRA

Bizizuloko lehiotik begiratzean, eta frentez frente zerua ikusten uzten ez duen pareta marroxko batekin topo egitean, sekula saludatu ez duzun aragi fardoren bat, espresio hutsezko begiak herri haundian (bere alde on-txar guziekin) suertatu garen horkotarrak maizexko oroitzen gara oraindik ere natura gailentzen den alderdi horretaz.

Gaurkoa bezalako larunbat batean, maiatzeko arratsalde luzea, azkeneko argiak aldendu baino lehen dutxa azpian garbitu eta frexkatu ondotik, hankak arin sumatzen ditut lagunen bila abiatzean.

Multxoka dago jendea, kuadrillaka, ostatu barrenean. Lehenbiziko txikitoek bilera bedeinkatzen dute. Gonbertsioak, bakoitzak bere basoa eskuan duela. Ez dut solas aunitzik egiten, eta burua mugituz ieup erraten diogu elkarri aspaldi ikusi gabekoek. Zeremonia igualtsua egiten da behin eta berriz zenbait aterpetan. Gero eta animosoago. Buruak amets-eltzeak dira, eta bertan egosi direnak ez dira seguraski gozatuko gaurkoan ere, kasurik gehienetan baina igual dio.

Norbaitek proposatu du afariarena, eta disimulatu ezinezko kontentoz baietz erran dut. Abotsak lasaitu egin dira mahaiaren inguruan jarrita garela. Intimidadea haunditu da. Ardoak ez du parekorik. Kafekoñaka bixigarriak begietan irri fijoa utzi dit arrasto gisa. Purua ere ezpainetara. Kantatu egiten dugu gauak mozkortuta.

Bestak dituk Iruritan. Kotxearen argiek iluntasuna bortxatzen dute. Bidasoa bijilatzen dago seguraski, edo erdi lo eta zurrunka goxotan bertzela. Badakit begiak ameslari ditudala, urrun.

Akordeoia baztertu dute orkesta builosoek herri ttikietan ere. Musika horren onda mehe-lodiek airea harritzen dute, eta oilategian lo egin nahizik daudenak harrotzen. Ostatuak topeetaraino beteak. Solasa ez da gustora egiten ahal, eta gorputzek mintzatu beharko lukete, gehienak mutu xamar ordea, ez baitakite. Barraren gibelkaldean egonean prezisamente ez diren lauzpabortzak apustuan ari direla ematen du, eta izerdia darioan nekea metatzen dute polliko-polliki gerriko partean.

Dantzatokia gurutzatu dugu, zumurretik zurrutera, eta begiak bilartu bidenabar, edo aldrebes bidenabartasun hori. Ilargia paseiatzen ari da zeruan, izarrenean, ez katezismokoan, nahiz eta ni ez naizen ohartu. Hatzaparra lepora bota didan (lagun) honen begi azpiko boltsek borrokaren azkeneko asaltoetan dagoela erraten dute, hutsari golpeka aritu duk hori, leher egina utzitik, gaizajoa!



Zerbezetan itoa nago plazara azkeneko aldiz ateri orduko. Kolorezko bonbilak itzaltzen ari dira eta errealitatera bueltatu beharrak amorratzen nau. Haize frexko batek aurpegia musukatzen dit eta hankak pisuago daudela sumatzen dut. Leonard Cohen-ek Suzanne kantatzen du kotxean, ni izen arruntagoa duenaz oroitzen naizen bitartean. Ilunpetan eta oinez egiten ditu etxerako azkeneko metroak. Haizea arbol hostoekin ari da solasean. Bidasoari hola erraten dio berriz. Haize hegoko gau batean urkatu zuen bere burua Luziok goiko zelai horretan. Elizako kanpaiek gogo txarrez kantatzen dute goizeko mezatara abiatzeko prest daudenentzat. Garbi aditzen da soinua, iparra dela seinale.

Bizizuloko lehiotik begiratzean, eta frentez frente zerua ikusten uzten ez duen pareta marroxka batekin topo egitean, sekula saludatu ez duzun aragi fardoren bat, espresio hutsezko begiak, herri haundian (bere alde on-txar guziekin) suertatu garen horkotarrak maizexko oroitzen gara oraindik ere natura gailentzen den alderdi horretaz.

KAPI



Triste

Triste nauzu maitea
gaur horrela esnatu da mundua
nere begiekin zabaldua
euri soinua belarrietatik zintzilik
neure minberak minez
zeure joateak utzi duen berotasuna
estaltzen
nere esnatze berria
esnatu nahiean.

triste maitea.
begietako niniak dantzan
lore gorrien ispiluan sutan
asmo sendoen ostotan irristan
zure eta nere bakardadean
eskua emanez
eta
triste nauzu
kopeta ez delako haserre
ezpainak ez direlako irria
eskuak ez direlako fereka
oinak ez direlako pausoak
bihotza ez delako taupada

triste maitea
sua ez delako garra
elurra ez delako horma
nere barnea ez delako landa
eta
triste
triste triste
beste hitzez,
beste doinuz
beste solasez
ez dakitelako

ez!
hori ere ez da
triste,
minduta,

hitz alaiez
doinu arinez
solas ederrez
hitzegiten ez dakitelako
eta ikasten
oraindik hasi ere
ez naizelako.

1985eko maiatzaren 16a edo.

Rosarito





Nere orain ezezagun, mineko lagunari.

Edonon zaudenik ere, eskutitz ireki hau irakurriko duzunaren ziurtasunean.

GIZAKIARI SEXU AMODIO DATXEKIO

Batek pentsa lezake hamaika aldiz larrua joez gero maitasuna ongi egiten ikas daitekeela. Ergelkeri hutsa, besterik ez!, hori horrela ez delako atzo eduki genuen bizipenaz birbiz gintezkenez. Askotan honakoenetariko bizipinak gertatzen den bakoitzean berria dirudi. Oroimenak traditzen gaitu, edo hobetoagoa, paira ez dezakeguna, kontzientziatik uxatuz, hertzatzen dugu. Ikus ez duenak deus alda dezake!

Atzoraino umei dagokienetariko amodio motean genbiltzen. Bi beldur eta muga gabeko gorputz ginen. Aldiunetaz gozazaleak, eguneroko mila atsegin desberdinetako forjariak. Beldurrik gabe gopurtz luze-zabaletan jolasten ohi genuen. Zurea ikuskatzea hagitz atsegin egiten zitzaidan. Zeure haranak, baso sutsuak, irrits-hildoak, gordelekuak, desestaltzea zen nere jolasgarririk politena. Oreztez orezta jauziz, zirkiluak etengabeko irrika berribiliz, sabelean sabuka arituz, iztermamietan irriztatuz, begien edertasunean -beltz sakona itsaso horlegian- galduz... ferekaz hordiak dardarikatzen genuen poztutako irriren artean, baina...

...atzo, ustekabean, nere behatzak herabetu egin ziren, zure sexu aintzin elbarrituak, aztertzearen lotsez. Helduak ginela konturatzekotan gorputzak beste ukipen motak eskatzen zizkigula onartu genuen eta, horretarako ezinezkotasun handiagatik, egoneza sakona geure baitan sortu zen. Irria ezpainetatik ezabatu egin zen, elkarrengandik aldeari ekiten genion bitartean, haurtzaroako mineria gaindi gaitzan ezgaiak...

...larruek galdutako ohizko laztanak garrasika, urdaila korapilatuta, eztarria hestu, ahotsa eihar... Zure joateaz -oparitutako arrosak ximeldu egin zirela- denboraren itogarri eta dentso erresortean, isiltasuna, haizez jabetu egin zen.

Askotan istorio berdinak errepikatzen ditugu bizitzean, oker beretan erortzen, bestelako zerbaitetan gaudela badirudi ere. Zurekiko istorioa bezelaxe. gaur, oraindik, 28 urteko oreztadun neskaren eseki nago, gure hazkunde hileta jotzen dut, eta areago dudana zera da: gure gorputzei sexu-iratzartzea onar gaitzan ezgaitasuna.

Zergatik atsegin sexualetan pentsatzeak izu gintzake? Helduak izateagatik erruduntasunapean egin beharko al genuke? Zergatik honela egin gaituzte?... Kriminalak, besterik ez dire hau lor dezanari ekin dutenak. Atseginketagabeko gizaki izan gaitezen -hildoak non asetasun gabeko aleak errez hozi baitu- nahi dute. Sexu izaki garela konturatzerakoan lotsa, ahalke eta hoben soma gaitzan prestatu gintuzten.

Erruduntasunak haurtzaroako gorputzen oldea hondatzen digu. Hau jatorriozko bekatuarena dirudit. Badirudi mezua honakoetarikoa dela: ume bezela jarrai zaitezten bitartean ongi egongo zarete, heldutasuna eta paraimena ordainak bide.

Nabarmena da haurrak -artaldearen bildotsakmaneiakorragoak direla artzainamen eginez. Azkenbatez...

datxekio-inherente
mineko-intimo
bizipen-vivencia
birbiz-revivir
tradi(tu)-traicionar
uxa(tu)-espantar
hertsa(tu)-reprimir
aldiune-instante
luze-zabal-extension
ikuska(tu)-explorar
sutsu-ardiente
irrits-anhelo
hildo-surko
desestali-descubrir
jolasgarri-entretenimiento
orezta- peca
zirkilu-escondrijo
berribili-recorrer
sabuko ari-columpiarse
hordi-ebrio
dardarika(tu)-temblequear
erbetu-volverse timido
ukipen-contacto
eraba(tu)- borrar
urdaila-estomago
ehiar-yerto
ximel(du)-martxitar
itxigarri- sfixiante
eseki-kolgar
hileta jo-lamentar
kexa(tu)-lamentar
izu(tu)-aterrar
hazi(tu)-germinar
ahalke-pudor
oldea-espontaneidad
jatorrizko pekatu-pecado original
maneiakor-manipulable
samin(du)-amargar
pairu-sufrimiento
atseginketa-satisfaccion

...ba... hori baietz dela, sexua, heldu gizakiei ez dagokien mota batean bihurtzen da, hain zuzen sexu neuratikoan. Benetako sexua, komunikabidea, ahalmena, poztasuna, da...

Bizitza samin dezagun maisu egokiak egin digute. Plazerra bilatu beharrean pairutik gutxienarekin konformatzen gara.

Hori betidanik izan bada ere, beharbada guk bereziki bizi dugun gauza da, gizarte hertserako baldintzagatik. Oraingoan badirudi, gaztetxoak sexu harremanetan ausartiagoak direla edo hori dirudigu; azken finean hobeto esana, ausarti baino oldeagoak direla esatea, dago; bakardadean masturbazioari emanez, bikotean, taldean... guk baino orekatuagoak izango dire noski!.

Aski da gaurko lagun mina. Ba dakit ustekabe hau gainditzerakoan berriro jolasari ekingo gatzaizkiola, eta orain, nola ez!, helduak bezela sexuari beldurrik gabe. Hurrengo topatzean denetatik hitzegingo dugu elkarrekin; jatorriozko bekatu, hoben, erlijio, bizitza samin dezan artearena... eta plazerren aurkakoek izaten diren beste ergelkerietaz... jolasten dugun bitartean.

Ados egongo zarelakoan ziurtasunean, zure zafladetako pailazo bat izan nahi ez duen, laguna.

M.

TTIPI TTAPARAKO BERTSOAK

Assura

1
Mila bederatzirehun eta
arogeita bostean,
ıpirilaren hogeita bata
gande arratsaldean.
Iruñean ospatutariko
"El Sadar" futbol zelaian,
Osasuna nagusitu zaio
Realari behingoan.

2
Mina, Kastañeda, Lekumberri
eta Purroy zeuden atzean,
Ibañez, Bustingorri, Llumbreras
erdilarien lanetan.
Etxeberria, Orejuela berriz
Martin lagunduz aurrean,
oberena Biurrun atezaiana
bizkor eta zauli atean,
pozaz zoraturik utzi gaituzte
ikusleak Iruñean.

3
Partidua hasi aurretikan
kristoren estutasuna,
joualariak kezkaturikan
zelako urduritasuna.
Prestatzaileentzako ordea
zelako zama astuna,
ikusleak golarekin berriz
lilura eta poztasuna,
irabazlea gertatu zaigu
bat eta huts Osasuna.

4
Realakoek zetozen arro
irabazteko asmotan,
lehen urtetan gertatakoa
oraindik zuten burutan.
Osasunakoak ez egoki
begiak itxirik lotan,
irabazteko nahia zuten
aspalditikan gogotan,
hurrengo aldiko ezazue
eduki hori kontutan.

5
Duela bi urte etorri zen
prestatzaile berria,
"Ivan Briz"
futbolen ikasia.
Taldea gertu ertzen doa
sortuz gaztedi trebea,
urtetik urtera eginikan
futbola ere hobia,
hinela jarraituz laster dugu
liga eta kopa gurea.

5
Duela lau urte Realak liga
Gure pozaz irabazi,
hurrengo urtean txapela zun
berriro ere bapo jantzi.
Lehengoen zihoen ordea
atletik txit erantsi,
joan zenean honek zituen
liga kopa irabazi,
datorrenean gurea baita
Osasunarentzat utzi.

7
Aipatu partiduan seigarren
postua zuten jokatzen,
irabazleak UEFArako
sarrera zuen eskuratzen.
Kanpoan jokatzeko aukerak
erabat gaitu poztutzen,
Europan zehar ibiltzerikan
sarritan ez da gertatzen,
baina ez pasa burutik gero
horrek gaitunik izutzen.

8
Arkonada, Urkiaga jarriz
Goiko ta Gorriz harturik,
De la Fuente, Gallego berriz
Ripodasek lagundurik.
Bustingorri Ufarte aurrean
Orejuela erditik,
Salinas utzirik eskubian
golak sartzeko bakarrik,
A zer nolako selekzioa
egin dezaken Euskadik!

9
Bertso hauen bidez nahi nuen
Osasuna goraipatu,
beste euskal ekipoz ere
nola nintekeen ahaztu.
Nire ustetan futbolak badu
hainbeste merezimendu,
zoragarrizko momentuak guk
horri begira pasatu,
kirolen bitartez behar dugu
herriak elkarganatu.

ZERGATIK ARI NAIZEN EUSKARA IKASTEN

Ezkondu arte ez nuen ezagutzen Euskalherria. Nere aita Burgoskoa da, eta nere ama Avilakoa zen. Ni Madrilen jaio eta hazi nintzen eta nere gurasoen herrietan pasatzenituen oporrak.

Orain dela hogei urte ezkondu nintzen euskaldun batekin. Nola nere senarraren familia nafarroan bizi zen, ezkondu eta gero, jakina, han hasi ginen urtero gure oporrak pasatzen. Lehenbiziko urteetan bidai asko egiten genituen Euskalherrian zehar eta herri, hiri, mendi eta hainbeste leku eder ikusi. Gaztelako lur lehorrak ezagutzen nituen baina hura bestelakoa zen.

Euskaldunen izaera ezagutzen ere hasi nintzen, beren ohiturak, jaiak, abestiak, kirolak eta bizimodua asko gustatu zitzaizkidalako euskara ikasteko gogo haundi bat sumatu nuen.

Beste aldetik, nere senarraren familia guztia euskaraz aritzen da. Nola beti harrera ona eta maitasun haundia ematen didate, gutxienez haien hizkuntza ikasten saiatu behar nuela uste nuen. Eta horrela, orain dela lau urte Madrilgo Euskal Etxean euskara ikasten hasi nintzen.

Badakit ongi ikastea oso zaila dela baina haiekin jolasaldi bat eraman banezake asko poztuko nintzateke. Hartan jartzen ditut nere ahalegin guztiak. Euskarak (hain ederra eta interesgarria baita), nere senarraren familiak eta nere irakasleek merezi dute.

Madrilen, 85ko otsailaren 18an.

Angeles Nebreda

IZENA

Nire garai hartako lagunez ez naiz oroitzen. Bi mutiko alproja, agian anaiak, ene ustez, herriko etxe batean bizi ziren gure parean. Batek Pale zuen izena, Pasqualearengatik, edo beste anaiaren izena izan liteke, ziur ez dakit. Leku askotako hainbeste mutiko ezagutzen nuen eta.

Bere aitak jipoi bat ematen ziolarik Palek -garai garaia eta zaldiaren aho batekin- etxetik ihes egiten zuen bi edo hiru egunetan faltatzean; eta gero, birragertzen zenean, aita prest zegoen gerrikoz larrua berriz kentzeko. Berriro ihes egiten zuen, orduan amak, harango bukaerantz, errekako basoen, zelaien gainean begiratzen zuen leiho lorrin hartatik dei egiten zion deihadarka, madarikatzen. Zenbait goizaldetan lehio hartatik andre haren garrasi lelotuak irazartzen ninduen. Atso anitzek umeei horrela dei egiten zieten baina guztiak mutuarazten zituen eta ehiztarien tiroak bezala zenbait ordutan sumingarri durundatzen zuen izena, Palerena izaten zen. Noizean behin geuk kopeta haundiz, isekatzat iohukatzen genuen izen hura. Nik uste Pale bera ere dibertitzen zela oihukatzerakoan.

Ziur ez dakit, Pale eta biok bakarrik geunden edo, aurreko mendiska malda idorretatik elkarrekin igo ginen egunean -lehenbiziko erreka eta kanaberadiak irabiatu genituen siestako tenorean-. Nire kideak hortz desestaliak eta ilegorrizko burua zituela ziur nago eta oroitzen naiz kontatu niolako alderdi idorretan bizi den lehoiak bereak bezala hortzak eta ilehori-gorriska zituela. Egun hartan sugearen bilakera zehatz batean aritu ginelako higitsuak geunden. Triparaino txipatuak eta garaitea eguzkipean genuen kiskaldua; zenbait igel ateratzen zen harriak mugitu ondoren, nire orkatilak erabat ubelduak zeuden. Horzka egin zuen belar baten ur berdea jariotzen zitzaion hortzen artetik Paleri. Gero, garrasi bat haizean, leun baina garbi, aditu zen landareen eta uraren isiltasun artean.

Ea niretzat zen, belarria erne nuela oroitzen naiz.

Baina garrasirik ez zen errepikatu. Geroxeago arrekako behitikoa utzi eta aldapa igo genuen, basaranen bila genbiltzala erraten gure baitan baina ongi jakiten -neuk bederen eta bihotzak taupadak egiten zizkidan- aldi honetan sugegorria zela helburua. Lehoiei buruz harro mintzatzen hasi nintzen bideska igotzen genuen bitartean, ipuruen artean. Zapatak berriz paratu nituen mutiko zintzoarenaren seinale bat egiten arratseko kontuen errendimenduan arrisku inplizituak ia ia konjuratzeko. Txistu egiten nuen.

Utzi. Horrela ez zaio deitzen sugegorriari, muxin egin zuen nire kideak gelditu. Urkuluzko bi makil genituen piztia harrapatzeko eta hiltzeko. Gutariko batzu uretara sartu arren segurunago biok bakarrik igo genuela bideska. Pale -ni baino desberdinagoa- harrian eta arantzeen gainean oinutsik zebilen arduraik gabe. Hori erran nahi nuelarik bapatean sasi baten aurrean gelditu zen eta, burua mugitzen, aurrerantz makurturik batetik irten zen eta handik zerua ikusten zen.

CP80**alproja**-pillo
jipoi-paliza
lorrin-al descubierto
deihadarka-chillando
sumingarri-exasperante
durunda(tu)-retumbar
iseka-burla
irabia(tu)-revolver
kide-compañero
zehatz-preciso
higitsu-agitado
garaite-nuca
orkatila-tobillo
erabat-totalmente
ubel(zka-amoratarse
hortzka egin-morder
ipuru-enebro
muxin egin-refunfuñar
urkulu-horkilla
ardura-cuidado
xuxular(tu)- susurrar
supitu-subito
txilio-chillido
imentzio-mueca
jaurtiki-arrojar
irain(du)-injuriar
langa-traviesa
sorbalda-hombro
uzkur-reacio
maltzur-astuto

-Sugea harrapatzen badugu hobe izanen da-, erran nuen isiltasunaren tartean.

Lagunak ez zuen erantzunik egin eta xuxurlatzen jarraitu zuen txorrotako uraren haritxo bat bezala. Sugegorria ez zen ateratzen.

Deihadar supitu batek haizean asaldu gintuen txilio bat edo astinaldi baten antzera. Herritik berriz dei egiten zuten: ohizko boza zen, urrikalgarri eta errabiatsua: '' Pale, Pale ''.

Agudo pentsatu nuen nire etxekoez. Pale gelditu zen, aurrerantz buruarekin, zango batez mantentzen eta bere deabruzko imentzioren bat egiten zuela eman zidan. Ia isilik ez egina berriz bozak: ''Pale, Pale''. Orduan kideak amorruz jaurtiki zuen makila eta presaka erran zuen: ''Bastart haiek'' Sugegorriak aditzen badu nire izena, bila ibiltzen garen bitartean, gero ezagun izanen nau.

-Goazen-, bozaren hari batez erran nuen.

Atso madarikatuak deitzen jarraitzen zuen. Ikusten nuen leihotik agertzen noizean behin bularretako haur batekin besoetan eta jaurtikitzen oihu hura kantatzen bezala. Halako batean Palek heldu ninduen eskumuturretik eta garrasi zuen: ''Ospa egin'' Lauaraino korrika batean egin genuen; elkar oihukatu genuen: ''Sugegorria'', kilikatzeko, baina gure beldurra -nirea bederen- hori baino konplexuagoa zen, haize eta harrietako potentziei iraintzeagatik zentzazio bat, ez dakit.

Gaua iritsi zitzaigun eta zubiko langen gainean aurkitu gintuen jarriak. Pale isilik eta ttu egiten uretara.

-Har dezagun freskua balkoian-, erran nion Paleri. Herriko andre guztiak hau edo hura deitzen hasten ziren, ordua zen, baina momentuz bake miresgarri bat zen eta zenbait kilkir bakarrik aditzen zen.

''Oraindik ez naute deitu'', pentsatuz erran nuen: -Zergatik ez duzu erantzunik egiten deitzerakoan? Arrats honetan jipoia gainditu duzu.

Palek imentzio bat egin zuen sorbaldak altxatuz: -Zer nahi duzu andreek uler dezaten?.

-Egiaz sugegorriak izen bat aditzen badu beraren bila etortzen da?.

Palek deus ez zuen erran. Hainbeste aldiz etxetik ihes eginez gero uzkur bihurtu zen gizon baten antzera. -Orduan mendiska hauetako suge guztiek jakin behar dute zure izena.

-Eta zurea baita ere-, erran zuen Palek irrino maltzur batez.

-Baina neuk erantzuten dut agudo.

-Ez da hori-, erran zuen Palek.- Mutiko zintzoarena egiten baduzu sugegorriari inportatzen zaiola zuk uste? Bera bilatzen dutena hil nahi du sugegorriak...

Baina momentu hartan lehenagoko oihua berregin zen. Atsoa leihora itzuli zen. Gurdi baten gurpilek kirrinkatu zuten eta putzuan pozal baten palastada aditu zen. Orduan etxeratzen hasi nintzen eta Pale zubian geratu zen.

Cesare Pavese (Il nome, 1941)

Joaquin Balentziak euskaratua.

Pinchera 84

BERAKO IKASTOLA ETA ESKOLA PUBLIKOAREN EGOERA EUSKARAREN AURREAN

Behar bada gure herriko hezkuntz egoeraz solas egiteak beldur handiegia ematen digu. Gai hau tabu dugu; une honetan fusioari, elkarpenari buruz solas egitea arriskutsuegia gertatzen zaigu. Bitartean, gu ohartu gabe, egoera honen ondorioak euskarak jasatzen ditu.

Altzate kalean, 14ean, bi ikastetxe elkarrekin bizi gara, eta biek inguru bera dugu: Berako gaztedia gurea den kultura eta hizkuntzean hezitzea. Altzate 14eko istalakuntzak, herriko etxearenak dira, mantentze gastuak Herriko Etxearen kontura izaten dira, ikastetxe bietako haurrek, joku, atsedenaldi, patio, ilusio, oihu eta borrokak elkarrekin dituzte. Ikastetxe bateko irakaslegoa M.E.C.ek ordaintzen du, eta bestea 75ean D.F.N.k. Beraz, biak diru publikoaz ordainduak dira.

Ikastetxe biek gauza asko elkarrekin ditugu, bai eta arazoak ere. Espazio arazoak, errepideetako taituketa okerrak, instalakuntza ezegokiak, material eskasa, etabar, eta batez ere haur kopuruaren arazoak.

Hona azkeneko urteotan Beran jaiotako haur kopurua:

1971ean jaioak:	35 mutil	21 neska.	56 Guztira
1972	32	32	64
1973	29	20	49
1974	36	21	57
1975	33	21	54
1976	34	26	60
1977	43	25	68
1978	36	25	61
1979	28	25	53
1980	38	30	68
1981	32	22	54
1982	25	21	46
1983	28	20	48
1984	19	23	42

Argi dago, haur kopurua hain txikia izanik, hiru ikastetxe gehiegi dela.

Fusioa eztabaidatzerakoan, galera ideia baztertu behar dugu, ikastolak nahiz eskolak ez bait dute deus galtzen. Kontuan hartu behar dugu jaiotze gutxitze honek gure superbizipena kolokan jartzen duela, bai batena bai bestearena ere.

Bezero berriak biltzen, alferrikako nor-gehiagoka batean, gure indarrak galtzen ditugu. Zer ari gara zaintzen, euskara ala gure superbizipena? Zein da orain, gure helburua: ikastola, eskola edo euskara?

Ikastola guztion ahaleginei esker, errealitate bat dugu, bere hamaika kurtso martxan dituelarik. Gaur hementxe dago, arazoz beteta, batez ere ekonomikoak. Lehenik, eskolak sortzen zituen hutsuneak eta deskulturapena ikastolak bete behar izan bazuen ere, gaur egun bestelako egoera dugu. Hau da, Berako eskolan lehenik ikastolan bezala adar euskalduna, pausoka ari da. Eskola aldatzen ari da, eta irakaslegorik gehiengoa, hizkuntzaz eta bokazioz euskalduna da. Orain euskara ez doakio ikastolako irakaslegoari bakarrik. Gaur, bada, ikastola ez da helburua. Egun batean izan genuen helburu



hark, bere zentzua galdu du. Gogoan izan behar dugun helburua euskara da, euskara guretzat gure umeentzat. Euskal kultura bere zentzurik zabalenean.

Guk–ikastetxe bietako irakasleok, elkarrekin gauza asko ditugula ikusten dugu: interesak, metodoak, lana... inor ematera ausartzen ez den urrats burukratiko eta administratibo bakar batzuk bereizten gaituzte.

Haurrek ere elkarrekin gauza asko dituzte. Batzuk alde batetik eta besteak beste aldetik sartzen dira gero.

Gurasoek, askok, umeak bi ikastetxetan dituzte, berberak bait dira.

Helburua, lana... dena berbera da. Zerk bereizten gaitu? Bakar bakarrik egoera administratiboak.

Egoera hau aldatzea, noren baitan dago? Ikastola martxan jartzea, noren baitan egon zen? Berako herriaren indarrean egon zen, eta gaur egunean Herriko Etxearen eskutan dago ere bai. Honek euskararen alde duen interesa ez da zalantzan jartzerik.

Noiz eman dizkigute gauzak burutuak? Azkeneko hamaika urte hauen bitartean ikastola ezartzeko indarra izan dugu, eta orain pauso sendo hau ez emateko, goikoak aitzakitzat jartzen ditugu? Banaketa honetatik herri baten kultura eraiki al daiteke? Nori interesatzen ote zaio bereizketa hau? Norgehiagokeria dagoen lekuan, batasun eza nagusi dugu; eta honek, luzaro, herriarengan ondorioak dauzka. Zergatik da euskara, hain zuzen, banatua dagoena? Zein da egoera honetan sendotzen dena? Indartsuena.

Ikastetxe bakoitzak bere superbizipenaren alde borrokatu behar badu, mesede makala egiten diogu euskarari. Gure indarrak lan gogor eta zail batean galtzen ari gara, eta horrela euskara bigarren mailara igarotzen da.

Euskara, helmuga dugu!! Ikastola aukeratu zuten gurasoen haurrak ez dira euskaldun bakarrak, besteak ere euskaldunak dira.

Zein da gure proposamena? Administratibo mailan bat izateko beharrezkoak diren pausoak eman daitezen.

Herriko Etxeak neurriak har ditzan, gurasoek parte har dezaten, eta euskararen, eta bi ikastetxeen batasunetik sortuko den eskola berriaren alde, borroka egin dezaten. Martxan jarri behar dugu. Denetan bat gara, paperetan izan ezik.

Zeintzu izanen ziren pauso hauek? Denon artean azter ditzagun.

Gure indarrak eskola publiko eta euskaldun bat eraikitzen erabili behar ditugu. Guri dagokigunez, arlo pedagogikoa, programakuntza, antolakuntza, martxan jartzen ahaleginduko gara. Gainekoa zuen eskuetan dago, gurasoak eta Udala.

Xabi Etxague
Patxi Sanjuan

EGIA ETA GEZURRA

Denbora batean, gauaz eta ohian batean, elkarrekin egon omen ziren Egia eta Gezurra, eta Gezurrak Egiari bidegurutze batera ailegatu zirenean erran omen zion:

hi, hoaie hor barna, ni joanen nauk harat, bertze aldera eta egunen batean berriz harrapatzen badugu, orduan besta bat eginen, antolatuko dugu. Hi mixerablea haiz, ni berriz aberatsa nauk.

Egia gaztaindegi handi batera jpoan zen eta han barrenean gelditu zen. Euria ari zuen eta sorginak baino lehenago joan zen gaztain zulo hartara, eta handik ordu bat betera hasi ziren sorginak, batak danbor soinua, bertzeak zurupitak, akordionak, denetikan, ikaragarrizko zera, besta.

Gero, mundu guztiko berriak elkarri ematen zieten, hura zen akelarrea, gaztaindegi hura zen akelarrea. Gero, ondotikan, iiii!, aaaa! orain moruak aritzen diren bezala.

Aizan, zer dun?

Honelako erregearen alaba eri omen dun, bai, bai!

Bertzeak berriz,

Ez dun sendatu.

Ez dun sendatuko ere.

Bai, nik bazakonat haren erremedioa zein den. Egun batean elizan, «ogi puska» erori zitzaionan eta lurretikan ez zinan hartu eta ez ta jan ere. Harri baten azpian zegoen apo batek aho puntan ezin sartu izan zinan, eta apo hura hatsik gabe gelditzen den denboran erregearen alaba hilko omen dun. Orain, apoaren gainean dagoen losa kendu, eta hari ahotik «ogia» kendu eta berak jaten badu, sendatuko dun.

Egia izaki, aditu zuena eta joan zen erregearen etxera.

Zuk alaba eri omen duzu.

Eta erregeak kontestatu.

Demonio kazkarra, hiri nork erran dik hori?

Beno, nahi baduzu sinetsi eta ez badezu... nik erran behar dizut alaba sendatzeko ez duzula mediku beharrik, nahi baduzu nere eskutan utzi, neuk sendatuko dut.

harek aditu zion hau. Gero behinik behin erregearen alaba hartu eta ondotikan abiatu zen Egiak eskatutako lau gizon palankadunekin. Ailegatu ziren elizara eta, baizekien zein losa zen. Zein tokitan egoten zen neskatxa?

Goizue losa hau.

Apua arrunt hazia, aurkitu zuten. Sorginak erran bezala, ahoan zeukan « puska» hura, eta horiek, apoak, sugeak bezala, madarikatuak dira. Eta beno;

Ken ezazu ahotikan « ogi puska» hori.

Eta alabari han gogoratu zitzaion, gizon honek erraten zuena egitea eta kendu zion « ogi » hura ahotikan eta jan zuen.

Neskatxa behar bezala segituan sendatu zen, ondotikan eraman zuten etxera eta nahi adina diru eman zioten, geroztik kotxerorekin ibiltzen zuten. Aberastu zen jakina nahi adina diru eman bait zioten.

Egun batean ailegatu ziren berriz, Egia eta Gezurra, Egiak ezagutu gezurra eta...

Kaixo Gezurra zer diagu?

Hi nor haiz?

Ni, Egia! Hik bidali nindukan Gaztaundi zoko hartara, eta gaztain zulu batean egin nuen gaua. Denbora txarra suertatu, honela eta honela...



Nik ere joan behar diat zulo hortara

Bai, hoaie nahi baldin baduk.

Gezurra jarri zen zelatan, aditzen. Berriz ere danbor, hitzak, zurrupitak, iiii!, eeee!

Aizan!

Zer dun?

Honelako erregearen alaba, lehenengo aldian guk konbertsazioan eman genion bezala, sendatu dun. Bakarren bat bazegoen gaztain ondo honetan, aditzen zegoena, zelatan zegoena alegia. Gaur bilatu behar dinagu ondozondo. Harrapatzen badinagu, porrokatu behar dinagu, xehatu.

Behinik behin, hasi omen ziren miatzen eta Gezurra aurkitu zuten Egia egon zen toki berean, eta Gezurra miseritan paratu, xehetu.

Eta ondotikan Egia eta Gezurra elkartu ziren, bat ezin mogituz:

Hik errana aldrebes atera zaidak.

PATXI ZUBIZARRETA

Mariano Ibarra, sunbildarrak kontatua. 1984ko Abuztuan.

BAINA, EUSKARA ZERTARAKO?

(Kontxexi eta Oxemielen marmariak)

— Kanpotar ugari genuen atzo herrian, Kontxexi. Eta ikastolerentzat dirutza polita, seguraski.

— Zerbaiten beharra badugu, Oxemiel.

— Ikastola niri ez zait gaizki iduritzen, baina hainbat buruhauste eramatea ere...

— Hara zer ateraldia! Ez dakizu oraindik Estaduak ez duela sosik ematen? Eta Foru Diputazioarena, badaezpadakoa da. Eta izanda ere, lagungarri bai izaten ahal da, baina ez aski.

— Bai, bai, badakit hori, Kontxexi. Nik erran nahi dudana bestea da: euskara ikasteak horrenbeste neke balio ote duen ba.

— A, hortik zabiltza zu ere?

— Ez dakit bada. Gaur dena, edo ia dena, erdaraz egiten ahal duzu: dendako erosketak, Herriko Etxeko paperak, irratia entzun eta telebista ikusi. Eta, bueno, Diputazioko eta Gobernuko bulegoetan egin beharrak, zer erranik ez.

— Hori duk, hori, arrazoia! Zuk daukazun urteekin, Oxemiel, hori baino zentzu haundiago baduzula pentsa dezake edozeinek.

— Zer zentzu eta zer arraio! Ez da bada egia nik errana? Ehun kilometro iparraldera zoaz, eta norekin euskaraz eginen duzu? Inglaterra, Alemania eta horrelakoetara joanez gero, berriz, euskaraz zer?

— Ez berotu, Oxemiel. Inor berotzekotan, bestek berotu behar dute. Gaur erdaraz ia dena egin daitekela? Bai. Eta horregatik euskararen beharra eta balioa hankaz goiti bota? Orduan, zutaz inor kezkatzeak ere ez du merezi, zuregatik eta zuretzat lan egitea, zuri jatera ematea, horie ere alferrikako lan eta nekea da. Izan ere, zaharturik eta jubilaturik zaudenez gero, zuk egiten ahal duzunagatik zure beharrik ez dute, ez zure etxean, ez herrian. Estaduarentzat gastu bide besterik ez zara, bai, eta zeure burua putzura botata ere, berdin edo hobe.

— Alajainkoa, Kontxexi. Mingain hori nonbait ere pozoitu eta zorroztu duzu!

— Eta ehun kilometro iparraldera joan, eta gazteleraz norekin mintzatuko zara? Eta Alemanian, zer? Eta mingain pozoiturik ez, agure hori, erranak buruzkoak diren edo ez begiratu baizik.

—Banoa, Kontxexi. Bazkaltzeko gogoa ere joango zait bestela.

—Zoaz, Jainkoaren izenean, eta jan. Eta lo kuluxka ere egin, ea burua argitzen zaizun.

P.A.

IPUIN EROTIKO BAT

Atzo gauean, gure amak et-
kera joateko dei egin zigunean, bizilagun bat, nere anaia eta hirurok ginen, atarian sartu ginen. Orduan ahots batzu aditu genituen eta hiruek batean gelditu egin ginan. Ate atzetik begiratu eta eskailera azpian bi pertsonen itzalak ikusi genituen, hauxe aditu genuen:

- Baina, zer egiten duzu? Ja! Ja! Ja!

Hiruek han geunden ixil ixilik eta ixiltasun hura nere beste bizilagunaren ahotsak hautsi zuen.

- Baina, zer egiten duzue horrela?

- SSSSSS! - erantzun genion eta nere anaiak, behatzaz, eskailera azpia erakutsi zion.

- Aizu! hori ongi ikusi nahi badugu, hoberena, ixil ixilik eskailera batzuk goratzea da eta handik ederki ikusiko dugu.

Hiruek goratu genituen eskailerak eta orduan bai ongi ikusten zela. Bi pertsona ziren, andre bat eta gizon bat, eta elkar musukatzen ari ziren. Halako batean, andreak oihu bat bota zuen:

- A! zer egin didazu? Belarrian hautsiki bat! - erran zuen, baina gehiago aguantatu ezinik irriz hasi zen - ja, ja, ja, eta biek musukatzen jarraitu zuten. Nik, orduan, nere bizilaguna eta nere anaia begiratu nituen eta ia-ia begiek ateratzen zitzaizkiela ikusi nuen.

Musukatzen ari zirela, ohartu gabe, gero eta beherago zihoazen, eta azkenean lurrean gelditu ziren, bat bestearen gainean. Lurrean biraka zebiltzala, gizonak andreari eskua atorra barruan sartu zion. Momentu hartan, andrea altxatu eta gizona aurpegian eskuaz jo zuen, haserraturik.

- Baina... - Erran zuen gizonak.

Guri, «eszenita» hura ikustean, irrifarra eskapatu zitzaigun eta gizonak, zirudienez, aditu egin zuen eta:

- Ixo! Uste dut norbait dagoela - erran zuen.

- Ba, ba, Ez duzu elgerkeri besterik...

Gizonak, egoera hau probetxatu zuen andrea berriz besarkatu eta musukatzeko eta hala jarraitu zuten, lehen bezala lurrean gelditu ziren biraka. Hala zebiltzala andreari sakelatik mukizapia erori zitzaiola ohartu nintzen.

Halako batean, berriz nere amaren oihua aditu zen eta nere anaiak, non zegoen konturatu gabe, oihu egin zion:

- Bai, bagoaz!

Orduan, bikoteak gora begiratu eta ikusi gintuzten, baina ez zitzaiela aunitz axola zirudien. Guk eskailerak binaka goratu genituen eta etxean sartu ginen lasterla.

- Non zeundeten? - galdetu zigun amak.

- Ez, inon! - erantzun eta afaltzera joan ginen.

TXARO

OILARRA, AZERIA ETA ZAKURRA

Kukurruku!, Oilarra goserik zegoen eta zizari bila abiatu edo joan zen.

Nekatu zen eta pentsatu zuen, zuhaitz baten gainean gelditzea. Han ia lasai zegoelarik azeria ikusi eta hegatu zen zuhaitz gainera. Eta oilarra ohartu zen azeria berengana bazetorrela, eta goserik zegoela eta lurrean geratzen bazen bere sabelean egongo zela sarrixeago.

Azeria zuhaitz ondora joan eta honela erran zion oillarrari. Zertaz garatzen zera zuhaitz gainera? Ez al dakizu lege berri bat atera dela animalia guztiak lagunak izan bahar dugula?

Bai, bai, zer uste duzu ergela naizela? Ni hemen ez banintz zure sabelean egongo nintzake.

Baina ez duzu aditzen, lege berri bat atera dela?

Bai, bai, aditzen dizut.

Geroxeago zakur batek... azeriaren usaia sumatu zuen eta azeriak bere belarri haundiz aditu eta ikusi egin zuen zakurra eta laisterka hasi zen ihes.

Oilarrak orduan: Baina etzinuen erraten lege berri bat atera dela?

Azeriak: Bai, bai, baino zakurrak seguraski ere ez dakila lege berri hori eta horregatik dabil nere gibeletik laisterka.

Gero oilarrak ikusi zuelarik azeria joan zela zuhaitzetik, jaitsi eta oilartegira abiatu zen.



Natalia Rekarte Oteiza
Artze Donamaria

NEKATURIK JAIOTZEN DEN «ELKARTEA»

1. Nekatua jaio da eta atsegiteko bizi.
2. Maitatu zure gorputza zu maitatzen zaren adina.
3. Atsegin egunez lo egiteko gauez.
4. Norbait ikusten baduzu atsegiten «lagundu iezaiozu»
5. Lana aunitz egitea nekadura da.
6. Ez egin gaur bihar egiten ahal duzuna.
7. Egin ahal duzun guttiena, egin behar duzuna, utzi besteak egiteko.
8. Anitz atseginta ez zen hil inor behin ere.
9. Lana egiteko gogoa sartzen bazaizu jarri zaitez eta esperatu gogoa pasatu arte.
10. Lana osasuna bada gora heritasuna!

Amelia Lizasoain

BORDATXO ETA GINTONIKA.

Txino errefrau batek dioenez: ''Azken ailegatuak, lehen izorratuak''. Eta niri, nahiz txino ez izan, Blasek baztertutako lana eman didate: Bordatxokronika. Anjela Maria!.

Maiatzako 12a, igandea. Blasek idatzitako artikulo biak irakurri ditut, bazkal onduan, eta, beste armarik gabe, handik azaltzeko erabakia hartzen dut.

Kanpotik ez du itxura txarra. Eliza baina gorago eraikia, inportantzi handigoa duela ikusten da. Jende asko, ez jendaira. ZAS! lehendabiziko puntto iluna: sarrera. Garestia eta kontsumiziorik gabe. Nola da posible? ERNE baten, adibidez o por ejemplo, txartela merkeago batez lortzen duzu, bide nabarrian, droga legala. Lokala hotz xamarra iduritzen zait, gogorra: Porzelanosa anuntzio bat eta Ginarik gabe. Hori bai, Blas, aiptutakoa, exajeratu bat izan behar. Total, Bordatxo, Malloak, Erne edo Gure Kabia, eta beste hainbeste, denak berdin: larunbata eta iganderako garaje-dancing-ligatoki. Musika ez oso ona? Bale, ezta ere ''horrosorua''. Kasteilanoz esateko: discretamente mala. Eta dantza egiteko ia lekurik gabe.

Benetan ''horrorosua'', izugarria, beldurgarria, gintonika dugu. Edalontzi edo baso luze batean, grazi gabe eta, batez ere, limoiari gabe. Bainan, mesedez: XX-garren mendearen bukaeran gaudela!

Akaso zuri, irakurtzailea, ez bazara gintonik zalea, tentelkeri bat idurituko zaizu gai hau, edo gai hau tentelkeri bat idurituko zaizu. Baina ez da, ez, nere kasu pertsonala bakarrik. Bordatxon nengoela, harrituta, edaria begira eta ezin sinetsi, hara nun alkartzen da tipo txiki bat, bizar txiki eta kazka motza bera, bi begikin eta, biak su dariola, limona eske.

-Ez dago.

-Gintonik, limonakin zerbitzen da, hau eta hura esanda, azkenik.

-Hoaie hemendik... eta, horrela, malaletxen, atera ginen antro hartatik, suminduak. Blasek, arrazoia ote?

Kasernara sartu ginan, kontsolagarri bila, eta han bai! Tipo rubio handi batek behar moduko gintonikiak eman. Kopon borobila, anka luze bana. Horma, limona, eta hertzia limoi azalakin igurtzita: AAAAAAAAH!

HAUXE DUK, HAUXE!

ZUBIETATIK ASURARA ARDIAK ERAMATEN

Aspalditik ezagutu nahiean nengoen, ez dakit zergatik baina Asura nere geografiatik kanpo gelditzen zen zerbait bezala sumatzen nuen.

"Noizbait joan behar diat ba". Pentsamendu hau Asura entzuten nuen aldiro burura zetorkidan. Une batean gelditu besterik ez tartea harrapatzea bezelakorik ez eta asmo hori bete, baina askotan pentsatutik egitera... urteak. Bederen horrela pasatu zait neri eta azkenean noizbait Asura ezagutu dut.

Florari aspaldian esana nion: "Flora, ardiekin Asura aldera joan behar duzularik esan iezaidazu", bera Asura aldekoa baita eta gainera bizi guztian artzain izana; bidea berarekin egitea atsegin zitzaidan, um! zein ongi ez?, mendian ibili, bidenabar ardiek goitian utzi eta zoko hura ezagutu, zenbait gauza egin daitezkeen igande goiz batean.

Hala ba, orain dela igande batzuk, Asurara joateko gelditu eta joan egin ginen; egia esan beste munduko gauzik ez zen gertatu baina hala ere egun hartako berri eman nahi dut, batzuentzat eguneroko kontua izanen da, ardiekin ibiltzea edo mendira joatea etab. baina... ze demontre! ederki pasa genduen eta horretaz gain gauza batzuen berri jakin eta horixek horri honen bidez azaldu nahi ditut.

Goizean 7,30 aldera abiatu ginen, ardiak izugarrizko martxa hartu zuten, Zubietako zubia pasa ondoren malda goiti, laisterka; aisa hartu ziguten aurrea, haiek nonbait bidea ezagutzen zuten.

Segituan herria behetti gelditu zen eta Florak mendi tontor, zelai honen eta beste horren izenak esanez leku izen hauek jaso nizkion:

Borralda, Iziar, Arburu, Ola Zaharra, Txitxilo, Tornola, Labestiko Iturria, Lasteingo Erreka, Solezelaita, Jainkon Iturria, Usindiko Putzua, Artxinga, Tuleria, Asularrea, Teileria.

Bidean gindoazela, ardi bat erori egin zela, esan zigun Floraren semeak, amak altxatzen laguntzeko adierazi zion, baina gu bertaraino ailegatu eta oraindik han zegoen, arnasa ezin hartuz erdi ittoa, nonbait sobera agudo zihoaztelako gertatu zitzaiola, hori zioten. Ardi haren bihotza kanpotik entzuten zen, garbi-garbi, lehertzeko zorian egonen balitz bezala. Dena dela, ardia handik segituan bere kasa altxa eta mantxo mantxo abitu zen. Hortarako artaldeari aurrea hartu genion ez zezaten abaila handirik hartu.

Ardi kontutan ari ginela, ardi bakoitzak bere izena duela esaten didate, aiba diez! Eta noski, gibelera begiratzen dut eta baten eta besten mutu-rra desberdina dela nabari. Orduan honen eta horren izenak entzun nahiean, galdezka hasi nintzaion, hara ardien izenak: Kapitan Txuria, Kapitan Nabarra, Kapitan Pentarria, Mutur Luzea, Firmal Mutur Luzea, Belarri Motza, Ardi Handia, Pototsa, Tigrea, Titi Handien Humea, Potxolo, Kalaskadun Gorria, Plakua, Ardi Xuria, Lepo Beltza, Titi Handia, Pentarri Kalaskaduna, Kapitan Motela, Mantxoa, Erbia, Jitana, Ardi Marrona, Beso Motza, Otso Adaskiria, Soila, Ardi Horia, Firmal Adaskaria, Ile Kuzkurra, Serotarra, Zepela.

Izenak ezezik, hauek ere jakin izan nituen: Ardi umea, arra bada arikoa deitzen zaiola eta emeari urrixa. Urte bitartekoari bildotxa, urtea pasatuz gero artxantxoa, gero firmala eta hiru urtekoari ardia. Horretaz aparte, behiengatik susara dagolea esaten den bezala, ardiengatik arkara dagoela esaten da eta ahuntzengatik berriz auzkara.

Horrela bada, pare bat orduko bidea egin genuen, Labaiengo muga pasatu eta malda behetti hasi bide guztian ez genuen inor topatu eta bat batean Flora ohartu zen norbait atzetik heldu zela eta hala izan ere, mutil gazte bat bere bazkaria morralean zuela behorra non zebiltzan ikustera zihoana. Erreka bat eta bestea pasa ondoren "Asura Beltza" duen baserria aurrez arre ikusi genuen, han mutilak alde batera jo zuen eta guk baserrikoek agurtzera sartu. Baserri hortantxe hasten da pista eta bederatzi km. egin ondoren Goizuetako karretera harrapatzen da. "Asura Beltzetik" "Gorrira" pasatu ginen, hala izena baitu Floraren jaiotetxea. Etxe hori handia eta ederra da dena harrizkoa eta aspaldian hutsa omen dago.

Halaxe "Asura" ezagutu eta bidea jakin ondoren beste behin ere egiteko prest izanen gara.

Arantza

ARANTZAKO POPULAZIOAREN AZTERKETA

Gizarte baten populazio ikasteak garrantzi handia dauka, gizarte horren osasun maila ezagutu nahi badugu. Populazioaren aldatzeak gizarte sozioekonomiko eta kultur baldintzen ezaugarriak adierazten baitizkigu. Helburu hortaz Arantzako mende bateko populazio aldagarritasunari dagokionez ikastea bururatu zitzaidan. 1880-tik - 1980ra bitartea aztertu dudalarik, datozen datu eta ondorioetara iritsi naiz.

Arantza Nafarroako ipar-mendebaldean datza. Hain zuzen, beste lau herriekin batera (Igantzi, Lesaka, Etxalar eta Bera), Bidasoako Estropada delakoaren Bost Herri eskualdea osatzen du. Betidanik erabat euskaldun herria izanik, izugarrizko kanporaldaketa gertatu da mende honetan. Zergatik?

Populaziozko diseinua egin dezan onartzen ditudan aurre-hipotesiak:

1.-Gizarte teknologiko aurrerapen aurrean ohizko baserri ekonomiek ez dezake euts populazio kopurua. Ogibide eta bizitzeko baldintzei egokiagoa jendea kanporaldaketara doa.

2.-Aipatutakoa ez da nahiko, horrez gainera, biologiko zergatiak daude. Elikapena, etxebizitza, eta higieniko baldintzaren egoera txarragatik sortutako eritasunen eragina. Batez ere antzutasuna handia izan diteke.

3.-Ohizko psikosozial baldintzat eraginagatik, soilik ekimen handiko jendeak herria uzten du. Hoien joateraz herriak beharrezko oldarra galtzen du.

1.-DEMOGRAFI DESKRIBATZAILE

1.1.-Biztanle kopuruaren bilakaera. Ondoko biragunak erakusten digu.

1.2.-Hiru urteko datu zehatzagoak:(Tegitxota bakoitzaren esanahia uler dezan behar den azalpenaz)

1. Populazio kopurua.
2. Populazio erdiaduan.
3. Jaiokuntz indizea, zenbat haur jaio diren 1000 biztanleentzat.

		1	2	3	4	5	6	7	8
BAI	Ed	20	6	18	2'02	0'9	0'25	-6
Ez	Ed	11	5	2	0	0	0	0
	Eg	4	4	0	0	0	0	0
Guztira			35	15	20	2'02	0'9	0'25	-6

4. Sexu indizea: gizonezkoemakumezko.
5. Baserrietan gelditzen direnen portzentaia.
6. Herrigunean gelditzen direnen potzentaia.
7. (0-14) urteen bitarteko portzentaia. 8. (15-49) urteen bitarteko portzentaia'
9. 50 eta gehiago bitarteko portzentaia.
10. Populazioaren egoera edo joera.



Mende baten biztanle kopuruaren bilakaera.
Zenbat urteetan, adierazgarriak, kopuru zehazten.

1.3.- Hiru urteko biraguneak. Adinen populazio banaketa.

1.4.- Ondorengoaren azterketa. 1925, 1930 eta 1935 urteetan jaiotako emakumeen ondorengoaren analisia. Ondorengo dutenak BAI, ez dutenak EZ.

1. Zibil egoera: Ed (ezkonduak) Eg (ezkondugabeak).
2. Kopurua
3. Herrian gelditu direnen banaketa.
4. Herritik emakume joaleak.
5. Emakume bakoitzak eduki duen ondorengoaren kopurua.
6. Emakume bakoitzak eduki duen ondorengoaren neskaren kopurua.
7. Bisorkuntza indize garbia (BIGRo)
8. Natural Hazkundaren barrutiko indizea. (r)

1.5.- Demografi deskribatzaileren oharterazteko datuak:

1.5.1. Mende honetan populazioa zahartzen doala, aurrerakoitik atzerakoia bihurtuz. Erdi-adina 12 urte zahartu da azken 62 urte hauetan.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1889	950	26	26	1'02	30	70	39	37	24	Aurrerakoia
1908	1006	26	34	1'06	30	70	38	41	21	Geldikorra
1980	744	38	8	1'2	37	63	21	39	40	Atzerakoia

1.5.2. Bizitzako denbora luzatu dela. 1889 urtean bizitzeko goiko mugaren adina 77 urte zenik, 1980-an, berriz, 87 urte izan zen.

1.5.3. Jaiokuntz indizea beheratu dela. 1889 urtean 26 ume jaio ziren 1000 biztanle bakoitzatik, 1980-an ostera, 8 ume soilik.

1.5.4. Joera batez ohartzen da, baserria gero ta areago jendea lagatzen ari dela, baserritik herrigunera jeisten.

1.5.5. Izugarrizko kanporaldaketa gertu dela, batez ere gaztaroan. Betidanik joera honetaz ohartzen bada 1956 urtetik aintzinera gehitzen da.

1.5.6. Arraro izanik ere, betidanik gizonezko emakumezko baino gehiego izan da. Mende honetan hau areagotzen doanez gero badirudi emakumezko gizonezko baino gehiego kanporaldatzen dela.

1.5.7. Biologiko indizeak populaziozko ondorengo gaitasuna urri dela adierazten digute. Antzuaren indizea gehiegizkoa da, ba ezkonduta dauden emakumeetik ondorengo gabekoak 35,4 dire.

1.5.8. Aztertutako emakumeetan ehunetik 57,14 joale dire, Gertakizun honek herriko egoera txartzen du, ba bikote antzuetik ehuneko 81,81 herrian gelditu dire.

1.5.9. Aztertutako emakumeetan ezkondugabeko guztiak herrian gelditzen direla nabarmena da.

1.5.1O. 8-garren eta 9-garren puntuzkoetan aipatutakoaz herriko egoera gehiago larritzen da, ba - ondorengo gabeko emakumeetik ehuneko 86,66 herrian gelditzen dire.

2.- Demografi analitiko.

Ehun ta bederatzi joaleak izan baziren ere, populazioari dagokionez garaitik osasungarriena 1880-1901 bitartea izan dela nabarian ezarri behar





Zenbat urtetan populazio kopuru adinen arabera sakanabakuntza.
1889 — 1908 +++ 1980 -o-o-o-

da. Hots, bitarte honetan finkatuz, oinarritzat hartuz, diseinu matematiko egin daiteke populazioa denboran zehar nola izan beharko ziratekeen jakin dezan.

Eredu matematiko horren interesa zera da: iragana, orainaldia eta etorkizunean aztertzen utz gaitzakela, hain zuzen, esan dezakegu:

- Arantzara lehenengo bikotea 1425-garren urtean iritsi zela.
- 1980 garren urtean 2213 biztanle egon beharko liratekela.
- 2000 garren urtean 531 biztanle egongo direla, gaurko kanporaldaketaren joera, jaiokuntz indizearen beherakada eta heriotz indizea, jarraitzekotan.

Berriro eredu matematikoen garrantzia eta ahalbidegarriak oharterazten ditut. Gertatukoan aztertzeko beharra sor dadin eta batez ere etorkizunaren larritasunetaz ohartuz gero behar diren ekintzak har ditzaten.

3.- Ondorioak

Nere ustetan egin beharko lituzkena zera da:

-Azterketa sozioekonomikoa egin dezan. Beharbada hau egiteko erantzukizuna udaletxeari utz beharko gehiezaioke.
- Baserri ohizko ekonomi hustirakuntzazko teknikak gaurko egoerara laketzea.
- Herria atsegina bihurtu gazteak joan ez daitezen arlo guztietan gazteen partaidetza indartuz, politika eta ekonomia mailari dagokionez bereziki.
- Etxebizitzaren baldintzak hobe dezaten. Joan den urtean egindako azterketan, etxebizitzetan ehuneko 7,4 komunik ez zegoen; ehuneko 23,12 dutxa edo bañera ez zegoen; ehunetik 22,44 ur beroa ez zegoen.. e.a.

M.



AZKENEAN, DENA JAKITEN DA

Euskadiko beste toki askotan bezela, Bidasoako erreka inguru hauetan ere lanarik gabe dauden kopurua handitzen ari da, batez ere gaztez eta hain gazte ez direnez ere bai.

Nahiz eta jende askori entzun langabeziaren aurka dagozela gero ordu extrak sartzera joaten dira. Horrela denok dakigu, Lesakako Laminazioetan , Berako Fundizioetan, Saberan, eta abar ordu extra pila bat sartzen direla eta hauek ez dute batere laguntzen lanpostuak sortzen.

Hau gaizki egon arren, Berako Alcon gertatzen ari dena harrigarria eta oso grabea da. Fabrika hontako langile batzu ordu extrak sartzen ari dire eta FITXATU GABE. Egunero sartzen dituzte eta Enpresako Komiteak hau badaki baina ez du ezer egiten galerazteko, mutuak bezela ixiltzen dira.

Noren interesak defendatzen ditu komite honek? Langile diruzale eta rakano horienak? Nagusiarenak? Guk behintzat garbi daukagu langabe daudenak izorratzen ari direla eta horregatik publikoki salatu nahi ditugu bai Enpresa bera eta baita ere honi jokua egiten ari diren guztiak, komitea eta ordu extrak sartzen dituenak.

Eta beren jokaerarekin jarraitzen badute beste neurri batzuk hartzera behartuko gaituzte.

BAZTAN BIDASOAKO LANGILEAK

NERE GELAKO PROBLEMA

Nere gelakoak uste dute Euskaldunon izateko bakarra Euskal Herrian bizi behar dela, bai alde batetik arrazaia dute baina beste aldetik Euskaldunon izateko burruka behar da. Beste alde batetik uste dute naizela tuliu bari dena ulertzeko, bai egia da baina tukitan jakin behar da nola izan harrant Euskaldun. Pentso izaera aberrale guztiak utzi bagenu burruka-ren? Et esta, ba nik erranga diruet Euskal Herria galduko eta gure herrio-pikutara jaanego zen! Hori ezinezko ikusi behar eta horregatik adoleau sartu behar zaio haberrale batzu aberraleak bazarie gure herria askatasunean izateko ahalegin!

BERTSOAK? ETOR BITEZ KAMIOIKADA OSOAK¡

Bertsozale garen guztiok
egun zoriontsuak iragan ditugu bertsolaritza hain indartsu eta osasuntsu sumatzean gure lurraldean.

Nafarroako Bertsolari Txapelketa ospatu berria dugu, ipar eta egoan saio bikainak eskeini digutelarik. Azkenean norbait txapeldun autatu behar eta ohore hau Mitxel Xalbadorrei suertatu zitzaion. Berorentzako zorionik beroena!

Nere ustetan, honelako jaialdi eta lehiaketekin txapeldun bat hautatzeak baina garrantzi handiagoa du bertsolaritza suspertzea, bertso aitzakiz hainbat lagun elkarganatzea lortzea delarik, momentu zoriontsuak daztatuz. Azken batez, gure bizitza triste eta bakarti honi aliziente batzu bilatu behar dizkiogu eta elkar komunikatzeko tresna bezala Euskara erabiltzen badugu (hain ahul eta motel dagoen hizkuntza maitea), ongi. Honeri berriz bertsolaritza eransten badiogu (Euskal Herriko historian hainbeste garrantzi izan duen arte zahar hau), ezin obe.

Filosofi merkeak utzita, itzul nadin harira, hau da: Arantzan ospaturiko bertso saioen laburpentxoa eskeintzera.

Euskadi Irratiak antolaturiko txapelketaren barrenean, Arantza zen Nafarroatik partaide bakarra. Zuzen diot «zen», zeren eta kanporaturik geratu baitzen Arantza Martxoan ospatutako bertso saioan. Denori irabazle izatea gustatzen zaigun arren, (kasu honetan bederen), irabazteari ez diogu (diot), garrantzi gehiagorik emanen. Bakarra, aurrerantzean ez dugula (dudala) hainbesteko irrimorik izanen Euskadi Irratiak ostiralero eta igandero eskeintzen dituen bertso saioak entzuteko, zeren herritarren bertsoak entzuteko aukerarik ez izanez gero...

Aipatutako lehian, Arantza eta Itsasondoren artean ospatu zen bertso eder asko eskeini zigutelarik. Salbador Madariaga herritarra, Luis Olaetxea lesakarra eta Fagoaga iturendarra ziren Arantzaren izenean partaideak eta Zeberio II, Barandiaran eta Bixente, Itsasondoko ordezkariak. Giro ezin hobea sortu zen, anaikortasun ederrean ekin zuten bertsotan, Bizente Barandiaranen sarrerako bertso hauek garbi adierazten duten bezala.

Ai Aranaz herri maitea
gaur natorkizu lehenbizi,
bisitatxo bat egin gabe uztea
nola iezenduen merezi.
Zure aurrean kantatutzeko
gu gaituzte berezi,
guztiarekin lagun nahi nuke
gaur galdu edo irabazi.



Bertsolari guztiak ahal zuten neurrian saiatu ziren bertso borobilak sortzen. Bakoitzak hiru bertso bota beharrean aurkitu ziren suertean tokaturiko gaiari. Ondoren Salbador Madariagaren hiru bertsoak gai honi jarriak: NOR GUSTATUKO LITZAIZUKE GABON JAIETAN ZURE ETXEKO SUKALDEAN IKUSTEA.

Hau da niretzat jarri didaten
bai gaia da pozgarria,
hoik ikustean beterikan
jartzen da nire barnia.
Eta nerone haien ondoan
naiz zoraturik jarria,
ai zer gustoa artutzen dudan
agertzean famili guztia.

Alferrik da nik esan gabe
hau ere bazterra uztia,
eguberritan ikustea.
Nahiz familia bilduta
bai lagun diran guztia,
baina handina nire bazterrin
ikustian nere emaztia.

Nola baitaukan egun handi bat
eguberritan jarria
lehen ere esan dizut pozaz jartzeko
dagoela famili guzia.
Horretarako bilduaz nolanizaten den afaria,
eta kontentuz gainera beste
lagun diren herri guztia.

Bertso guztiak azaltzea luzeegi izango litzatekelako, bukatzeko hemen doa Zeberio II azken agurra.

Hemen bildu gera gu
ostiralen gabaz,
bakoitzak bereakin
izan duen tranpaz.
Zuen konformatzeko izan gara kapaz
behintzat saiatu gara
duguna emanaz,
agur entzule maite
ta agur Aranaz.

ASSURA

ZUBIETAKO

ARDIA ETA OTSOA

Bobi ardi zuri eta lodia zen. Burua borobila eta begiak beltz-beltzak. Bobi Aralarreko mendian bizi zen. Bere jabeak, egunero eramaten zituen. Bobi, bere ama eta bere lagunak mendira.

Egun batean Bobi eta bere lagunak jostetan zebiltzala, baso barrua sartu eta galdu egin ziren.

Bobi eta bere lagunak oihu egiten zuten:

-Ama¡, ama¡.

Oihuka ari zirela, otsoa agertu zitzaien eta san zien:

- Ez zaitezte joan, nik zuek jango zituztet eta. Eta Bobik:

- Otso jauna gu ez gara joango baina hiru apostu eginen ditugu:

- Zein?, galdetu zuen otso maltzurrak.

- Lehendabizikoa hau da: Zeinek ematen duen esne gehiago, bestea, zeinek jaten duen belar gehiago, eta azkena zeinek egiten duen saltorik handiena.

Konforme¡, esan zion otsoak.

Hasi zen otsoa esnea botatzen baina Bobik abudo bota zuen esnea.

- Irabazi dut¡ - Esan zuen Bobik.

- Beno, beno, goazen bigarrenera, erantzun zion otsoak. Eta biak hasi ziren belar jaten. Otsoa nazkatua zegoen belarra jaten eta Bobi jan zuen gehiena.

- Irabazi dut¡ - Esan zuen berriro ere Bobik.

- Orain hirugarrena. Eta saltoka hasi ziren. Halako batean artaldeko aharia agertu zen. Otsoa korrika hasi zen baina ahariak bere adarrekin jo zuen otsoa ipurdean eta otsoa airean zebilela harri handi bateri jo eta hil zen. Eta handik aurrera Bobi bere lagunekin ongi bizi izan zen.

Gervasio Maiz - 5. maila (10 urte)

PREGON EGUNA

Aurreko Ttipi-Ttapan Erasungo pregon eguna nola izaten zen azaltzen genuen.

Oraingoan berriz, Zubietakoen berri dakartzkigu. Gaur egun ez da egun hori ospatzen baina garai batean nola zen adierazi nahi dugu. Herri honetan, Erasunen bezala, koplak abesteko joera ba omen zegoen baina behar bada orain dela ehun urte edo gehiago gauza izango dela zion herriko batek.

Pregona igande egunean botatzen zen eta andregaiak edo senargaiak konbitea eman behar zuen, ez omen zen aunitz izaten, azken boladan bost duro edo horrelako zerbait. Zerbait eman eta gazteak, mutilak, tragoa egiten omen zuten. Kasu gehienetan konbite hori ematen zen eta orduan mutilak palanka botatzen zuten, hartu eta bota karrikan barrena, frontonan kontra, plazan,... aunitzetan zazpi edo zortzi palanka botatzen omen ziren, alde batetik bestera.

Baina, konbite hori ez bazen ematen, orduan, komerik izaten omen ziren. Eman ez zuenari joariak jotzen bait zitzaizkion. Behin, batek ez omen zuen konbiterik eman eta ondoko hogei egunez joariak joka aritu omen zitzizkion konbitea lortu arte. Egia ote? Horrela gertatu ote zen? errana erran...

A.Z.

HILEROKOARI BURUZKO XEHETASUN BATZU

Emakume bakoitzak egoera hau modu desberdinean bizitzen du. Batzuk eritasun bat bezala, beste batzuk berriz karga edo pisu hantzera eta besteak berriz gauza naturala bezala, hau da den bezala onartuz.

Modu batean edo bestean bizitzea, emakume bakoitzaren heziera eta izateko eragin lotua dago. Dena dela, oraindik emakume askoren artean honelako iritziak menperatzen dute:

"Zer roilo den hilerokoa hilero etortzea"

"Hau ere emakumei tokatu behar"

Eta askotan halako zentzu mespretxuzkoak ere entzuten dira.

Emakume eta gizonezko askoren artean hilerokoa gauza zikina bezala hartzen da.

Oraindik ez jakintasuna dela medio, neska gazteei hilerokoaren berri ematean honelakoak esaten zaizkie:

"Ez ezazula korri egin"

"Ez da komeni burua garbitzea"

"Ez dutxatu"

"Ez gauza hotzik hartu"

"Ez... Ez... Ez... Hilerokoa mostu egin bait dezakete"

Baserri giroan ere honelakoak entzuten dira: "Txerri hiltzean emakume bat hilerokoarekin baldin badago ez da txorizorik egiten edo odolkiak egiten hasiko ez bait zaizkio ongi aterako". Edo, "edozein lore ikutuz gero, ximeldu egiten omen du".

Beraz, halako gauza arraroa eta konpreni ezina dela dirudi, misteriotsua.

Baina, "ezetz" guzti horiek eta iritzi nahas horiek ez dira kasualitatez. Gauza horien atzean emakumearen izatea izkutatzen baita, besterik ez. Hilerokoa 13-14 urtetan hasi eta gutxi gora behera 50 urte arteraino irauten du, haurdun ez dagon emakumeari 28-29 egunen buruan errepikatuz eta hiru edo lau egunez irauten dio. Emakumearen ama izateko ahaltasunarekin lotua dago. Hau da, behin hilerokoa izaten hasiz gero eta harreman sexualak izan aurrez ez badu gizonak edo emakumeak antisorgailurik hartu haurdun geldi daitekeela.

Beraz, hilerokoari buruz gauza hauek jakin behar ditugu:

1. Emakumeetan gauza naturala dela. Naturala denez gero, ez dela zikina, bederen garbitasuna beti bezala zainduz gero; hau da, ura eta jaboiari ez zaiola inoiz "alergiarik" eduki behar.

2. Ez dela eritasun bat ezta ahuldadearen adierazgarria eta horrela izan ez dadin ba..., beste egunetan bezala bizi normala eta sanoa egin. Lehengo fantasma zahar horiek kendu eta gure gorputza ezagutzen eta maitatzen has gaitezen.

3. Harreman sexualak izaten hasi aurretik haur bat izan nahi den hala ez eztabaidatu behar dela eta haurrik ez izatekotan neska eta mutilaren artean edo bakoitzak bere aldetik segurtasuneko neurriak hartu behar dituztela.

OHARRA.-

Batzutan, izaten dira hileroko mingarriak eta kezkagarriak, odol aunitzekoak edo behar den baina egun gehiagoz irauten dutenak. Kasu horietan gure gorputzetaz arduratzea garrantzitsua da. Badago halako filosofi bat emakumea mundura sufritzera etorria dela aldarrikatzen duena... Gure aurrekoak hala ikusi genituen, baina guk jakin behar duguna hauxe da: edozein aldaketa edo ezongitasuna kontutan hartu behar dela eta kasu horietan ginekologoarengana joatea garrantzitsua izan daitekeela gure osasunarentzat.

IKASTOLAK ETA ESKOLA PUBLIKO BAKARRA ESKOLA NAZIONALA

Guk izen honekin orain arte ezagutu dugun eskola, "eskola estatala" eta "espainola" izan da. Euskaldunok, inoiz ez dugu gure "eskola nazionalik" ezagutu. Baina, "eskola nazionalik" gabe nazio proiektorik eraiki ezin denez gero, gure helburu garrantzienetariko bat iadanik helburu honen alde borrokatzea dugu.

Zeri deitu behar diogun, eskola nazionala?. Gutxienez ondorengo baldintzak betetzen dituenari:

Euskal Herri guztian hedatutako eskola publikoari. Lehen epe batean Hego Euskadi osoan eta ondoren, Ipar Euskadira zabaltzen denari. Programa eta plangintza osoa Euskal Gobernu Nazional baten eskuetan dagoenari.

Maisu-maestra guztiak Euskal Herriko erakunde bakarren esku eta administraziopenean daudenean. Hau, **eskola nazionala da.**

Ikastolak juridikoki eskola transferituaz ekiparatzea.

Plateamendu hau ez da aunitzetan ongi zehaztua izan eta ezta ere ongi ulertu eta sakondua. Beraz, laburki bederen azpimarratu nahi nuke zenbait burutapen:

1.- Ikastolek zorrerazi zuten eta duten helburuei jarraikiz gure hezkuntza borroka funtsezkoak diren bi ardatzetan finkatzen da: **euskalduntasuna eta publikotasuna.** Batak bestea baztertu edo itto gabe, elkar loturik eta batera planteatuaz.

Nere ustez aipaturiko bi ardatz hauek, batetik osagarriak bilakatzen zaizkigu, eta bestetik elkar baldintzatzen dira. Hau da, Publikotasunik gabe ez dugu Euskalherriko eskola Euskalduntzerik eta era berean, ezin eskola bati Euskal Eskola Publiko deitu benetan **euskalduna** ez den bitartean.

2.-Ikastolak, eskola transferituaz **juridikoki ekiparatzea** defenditzen dugunean, ez gara ari ikastolen **fusioetaz** eta askoz gutxiago ikastolen deuseztapenetaz.

Gure herrian inoiz baino beharrezkoak ditugu **eskola euskaldunak** eta beraz inoiz baino kaltegarriagoak lirateke fusio erdaratzaileak.

3.-**Ekiparatzea** diotenean, eskola transferituarekiko **berdintasuna** exigitzen dut. Baina ikastolei bere **nortasuna** errespetatuko dion berdintasuna.

Hain zuzen ere, horrexegatik aipaturiko **ekiparazioa** gutxienez zenbait exigentziei baldintzaturik planteatzen dut.

I. **Ikastolak: eskola euskaldunak.** ez bilingue edo elebidunak. Oraintxe arte bezala, euskaldunak. Beraz, euskaraz hezitzeak exigitzen dituen minimo guztiak errespetatuz: hiru urteko haurren eskolaratzea, haurren kopurua eta abar. Hau da, ikastolaren euskaltasuna segurtatzea.

II. Gestio demokratikoaren arloan, autogestio zabal eta herritarra.

III. **Irakasle eta irakasle ez diren lanpostua ziurtatzea.** Lan baldintzak berriz, langileekin negoziatuz.

IV. **Ikastolaren patrimonioa** beraien esku geldituz, dauzkaten zor guztien kargu eginez.

Haurrak garrantzitsuak izanik ere, bi dira arazo guztiaren **ardatz** eta muina bilakatzen zaizkigunak: **gure euskaltasuna segurtatzea eta ikastoletako langileen eskubide minimoa errespetatzea.**

4.- Posible ote da baldintza hauek betetzea?. Utopia hutsa al da gutzieneko hauek exigitzea? Nere ustez, borondate politikoa balego, posible litzateke, baina boprondate hori ez dagoenez gero, ez Baskongadetako Gobernu ez Iruineko Diputazio eta ez Madrileko Gobernuaren aldetik, bide bakarra herri borroka dugu. Agintari hauen faltsukeria eta saldukeria aldatu dezakeen arma bakarra, herri mobilizapena, salaketa publikoa eta kale gatazka izanik, aspaldidanik bide honi eutsi beharrean gaituzue.

Ikastoletako langileen desilusioa sinetsi ezina da. Beren etorkizunarekin jolasten ari bait dira. Zatiturik eta ahuldurik daude, baina egoera honi buelta ematea posible da eta gainera, ezinbestekoa.

Gure Euskaltasuna errespetatuko al diguteke herri borrokarik ez balego? Orain arte ez, eta hemendik aurrera gutxiago.

5.- Aski argi dago **ekiparazioa** defenditzea ez dela gure helburua.

Hasieran esan duten bezala, gu, eskola **nazionala** eta Euskaldunaren alde ari gara borrokan. Eta ekiparazioak ez digu inola ere gaurkoz marko nazionala segurtatzen. Beraz, orain defendatzen ari garen proposamena bide bat bakarra du helburua betetzeko. Jomuga argi edukiz eta ozenki aldarrikatuz, eskola publiko bakarren hildotik, **arrai borrokan.**

J. Etxebeltzea

BELTZA

A, neska mutur beltza,
gezurra dirudi.
Ote dezun bihotza
galderan nago ni.

Gautxoriaren antza
ari zera bizi.
Ni jaio banitz ontza,
zu ez netaz izi.

Izpegitik berantza
galdezka zuazi.
Maite duzun bihotza
ote dun idatzi.

Ez da berria iraultza.
Berria ez naiz ni.
Aberria edo bihotza,
zu zaude erdi.

Ez da makala gauza,
alkarrekin bizi.
Maite ditut, beltza,
zure bihotz eta begi.

Zure sorgin antza,
ilunpetan ikusi,
nere bihotzaren poza.
Pakea, nere helburu nagusi.

Lotsati

DAMA BIDAIARIA.

Haizeak ziztu egiten du kontra-
lehioen ertzeen
kontra jotzen duenean.
Mendi gainak estaltzen dituen
elurra, urrun ikusten da.
Eguzkiak bere ahultzean lo egiten duenean, ixilik
geratzen da ilun sentia.
Dama bidaiaria
Zuri lagundu eta biok galtzea nahi dut.
Berez joan-etorrian diren ingurutako jendeak
zurekin ezagutu nahi ditut. Badakit, zure bidean, geltoki bat besterik ez naizela,
bizi hau konpaini goxo askorekin betetzen dela,
hori zuk badakizu.
Baina gehienetan gau bateko betetasun gozoa izaten da.
Eta pauso bakoitzean, itxaropena eta alaitasuna
berriro asmatu behar dira, kanpoan zain
duzun bizia zeharkatzeko.



KULTUR ASTE BAT

Martxoaren azkeneko astean, Arantzan kultur aste bat ospatu omen da. Beraren egitarauak eta beste zenbait arazo eta kezka adierazi nahi nituzke aldizkari honetan.

Aste horretarako, prestatu zen erakusketa bat, Herriko Udaletxeak duen pisu batean: Herriko argazki zaharrak, tresna zaharrak eta liburu eta diskak. Erakusketa hau osatzeko herriko etxe guztietara ohar bat banatu zen, erakusteko moduan dauzkaten tresnak eta argazkiak eskatuz edo utzitzeko esanez. Batzueri esker, erakusketa nahiko interesgarria lortu zen.

Herriko zentroan jarri zen, baita ere, bideo tresna bat eta bertan egunero filme bat bota zen. Baita ere txarla batzuk ematea pentsatuta zegoen: Emakumeen arazoak, alkoholismoa, espetxeak eta torturak eta Baserriaren etorkizuna. Baina baserriarena eta emakumeena ez ziren eman, hitzegitera inor etorri ez zelako. Esan behar da emakumeen txarla ez eman arren, heurek afare bat montatu zutela eta, bedere, ordu batzu elkarrekin pasa zituztela.

Asteartean, zaharren eguna ospatu zen, horretarako adindu mordoxka bat bildu zen, eta eguna elkarrekin pasatu zuten: Meza, bazkaria, jokoa..e.a.

Haurrak ere beren eguna izan zuten. Horretarako irakasleak edo anderenoak prestatu zituzten beren gelako haurrekin hainbat gauza: txontxongilo, antzerki e.a. eta gero Iruinetik etorritako Xauli taldeak beren antzerkia eskeini zien. Azpimarratzeko izango litzateke bereziki haurrak egindako txontxongilo eta antzerkia, ematen duenez lana asko egin dute maila horretan, eta oso ongi. Jarrai horrela¡.

Gazteenak parte asko hartu zuten eta esaten zutenez oso egun pozgarria izan zen berentzat.

Eskeini zen, beste egun batean kantaldi bat ere, herriko eleizan Txanbela taldearen bidez. Horretara; alde batetik beste herritako jende gutxi joan zen, beste festibal edo festa franko zegoelako inguruko herrietan eta bestetik herrikoak ere, ez dakit zergaitik ez zuen parte handirik hartu.

Aipatu behar ere herriko bertsolaria den Bautista Madariagari egin zitzaion omenaldia, Nafarroako bertsolari ugari bildu zen Arantzan. Egun berean ere, esku langile batzuk erakutsi zituzten beren bitxikeriak. Azkenean denak batera Herriko erretegi batean bazkaldu zuten.

Badago ordea aste horri buruz zerbait gehiago ikusi beharrik. Dirudienez gazte talde bati bururatu zitzaion aurten ere aste kultural bat antolatu behar zela. Honela, nola bait aurrera atera zuten astea, laguntza handirik gabe, oztopo frankorekin, batez ere diru aldetik, eta hasi zen hogeitabosteko astelehen batean.

Gazteak hasieratik ikusten zuten lana egiteko momentuan jendeak ez zuela gogo handirik jartzen, baina nola horrelako gauzak toki guztietan

gertatzen diren, ba, lana berak egin zuten. Egunak pasatzen joan ziren bitartean, ordea, ikusten zuten beste mail batean ere jendeak franko atzetik jokatzen zuela, giro txarrak agertzen ari zirela e.a.

Aste bukaeran ikusi zuten maila guztietako jendeak uste baino parte gutxiago hartu zutela. Honek ekartzen dituen kezka guztiekin.

Nik pixka bat gertatu zena ikusirik, nere iritzia eman nahi nuke eta nola bait zainak non egoten ahal diren agertu: Horretarako 3 talde egingo ditut herri mailan: bat jende jakintsua edo esperimentatua izango litzateke, gauza hauek ikusiak dauzkana, horrelako antolaketak zerbait dekoratibo edo desfasatuak bezala ikusten dituena. Hauentzat, beharbada gazte talde horrek zerbait antolatzea bere meritoa izango du baina beraiei antolaketa horiek ez diote deuserez esaten, «aurreratuak bizi dira, beste mail bateko jendea da».

Hurrengo taldea zera izango litzateke: prestatutako aste hori edo egitarau hori ona edo interesgarria iduritzen zitzaiena, baina, antolatzen ibili diren horien izena ea ez zaizkie hain onak iruditzen edo ez dire beren gustokoak. (Agian berak antolatua izan balitz, gauza bera, hobekiago izango zen). Hau alde batetik normala da ere zeren, gazte horiek, antolatzaileak, ez dute gauza bat dezenterik egiten, «ergel batzuk dira». Eta jakina bigarren talde honetako jendea errespetokoa da.

Hirugarren taldea berriz hauek osatuko luteke: maila hauetan antolatzen den gauz guztien aurka daudenak; esango nuke «instintoz» jokatzen duten horietatik direla. Gauz gutxi espero daitekeen jendea, ikusten den bezala. «jende praktikoa da , txorradak alde batera uzten dituenak».

Ba, hiru taldeei nik zerbait gogorazten diet: zerbait antolatzen badu jendeak ez dela kapritxo batengatik edo ohitura bat jarraitzeagatik, beharrezkoa iruditzen zaiolako baizik, beste inor ez bada mugitzen, berak mugitu behar dutela ikusten dutelako. Ez dutela hetsiko aurrera egingo dutela, gaur lehen baino tipo bat gehiagori ulertarazteko, gutxi gutxika, eta herriz herri lortuko dela Euskal Herriko kultura ezagutzea eta bertako problemak aztertzea.

« Aurreratuak» bizi diren horiei esango nieke begiratzeko pixka bat atzera ere, kristoren lana egin beharra bait dago. «Errespetoko horiei» , ba, pixka bat elkarreri ulertzen saiatzen bagara eta lagunduz jarraitu eramaten dugun bidea, azkarrago ailegatuko garala nahi dugun tokira.

Hirugarren taldekoei ez dakit merezi izanen duen deus esatea (horrelakoak izanik) baina jakin dezatela horien iritzia eta jokatzeko moduak ahitz gutxi kezkatzen ahal dutela.

Izanen da, ere, talde hauetatik kanpora beren burua ikusten dutenak, ados egonik parte hartu dutelako e.a. Hauei, ba «segi aurrera».

Edozein

EUSKARA ETA DESNORTASUN-ARAZOA NAFARROAN

1.-NAFARROA OFIZIALKIDETAN MUGATUA.

Euskararen atzerapenak eta galketak Nafarroan ondorio soziologiko eta politiko biziak dauzka. Hizkuntza bat galtzeak, normalean, andana berriak suposatzen ditu aintzinako kultura galdu duen herrian.

Euskara, etorkizunari begira, aski larri datza Euskal Herriko ama-erroa den lurralde honetan. Hobekuntza delako legean euskararen geroa aski problematikoa geratzen da, bertan gure hizkuntzaren lekukotasuna mende eta urte luzetako zapaltze-politiko baten onartenez pentsatua eta arautua dagoelako. Badirudi Hobekuntza delakoak ez duela ulertzen hizkuntzaren soziologia edo non nagusi diren elkarrekikotasun baten lepotik. Adibidez, Valentzian valentziera edo katalanera Estatutoan lurralde guztian ofizial den bitartean Nafarroan euskara mendialdera, eta atzo-gaurko lurralde hertsira mugatzea injustizia nabarmena da. Valentzian badaude lurralde historikoak, zein eta katalaneraz sekulan mintzatu ez dutenak. Estatutoaren arabera lurralde horietan ere valentziera ofizialkide izanen da gaztelaniarekin, valentziar izan diren lurraldeetan gaztelania ofizialkide den gisa.

Nafarroan, berriz, lurralde batzuk (hegoaldean bereziki) aspaldidanik erdaldun utsak dira. Beste lurralde zati handi bat, ordea, euskalduna izan da ia atzo arte, hots, XIX. mende erdirarte, hau da, Baldizarbe (Gares, Obanos) Orba Harana eta Tafalla arte. Lurralde handi hau, tamalez XIX eta XX. mendetako politika antieuskaldun eta gaztelaniaren bortxaz gero eta gehiago estutzen eta murrizten joan da. Beraz, Nafarroa gehienaren errealitate linguistiko erdalduna oso berandu bilakatu da zonalde askotan. Hobekuntzaren legeak, bada XIX. mende arte euskaldun izan diren lurralde hauetan ez du onetsi hizkuntza horren ofizialtasunarik, bertan multzo handi bat naitaez gaztelaniaren elebakartasunera bultzatua izan da eta, ondorioz, euskararen sustituzioa gaztelaniaren mesedetan kontsumatuz.

Lege soziologikoen arabera ez da posible lurralde bat-berean (eta luzarorako), halako estatikotasun abstraktu batez, elebitasunak elebakartasun baten alboan irautea. Normalean, lege soziologikoz, subjetu elebakarra bere elebakartasunera bultzaraziko du subjetu elebiduna. Kasu honetan elebiduna EUSKALDUNA delarik, eta elebakarra ERDALDUNA, hegoaldeko erdaldunak. Euskara (ofizial izanen den lurraldeetan ere, ez du posible egingo ofizialtasun hori, erdaldunak bere monolinguismo inposatzera joko duelako. Lege soziologiko hau oso nabarmena da edonon). Hobekuntzako legeak badirudi ez duela kontutan eduki praxi linguistiko hau, joera gisa. Euskaldunak, beraz, euskararen (halako erreserba berezi) batean itxirik, erreserba horietakoak albokoen elebakartasunera areago bultzatuak izateko arriskoa daukate.

ALDERDI KONTZEPTUAK. ETNIZISMOA.

Euskararen arloan, bestalde, kontutan hartzekoak dira euskara beraren kontzeptu alizazio berezietatik datozen ondorioak. Iturrietara joan da, jakina da Euskal Herriaren berpizkundea XIX. mende hondarrean hasten dela, eta berezikiago Sabino Aranaren bultzada politikoaz. Nafarroan gaur ere Euzkadi hiltzearen kontzeptualizazioa zenbat jenderentzat aski arrotza da, EUSKAL HERRIAN deiturapean dagoen filosofia eta zera askoz onargarriagoa delarik. Izan ere, jakin beharrezkoa da, Arana Goiri-ren ideologi-planteamenduetan EUSKADI kontzeptuak asera batean halako lorpen etnozentrista itxiak dituela, Europan garai hartan Irlandan, Polonian, Balkanetan etab. garaile ziren ideia nazio-etnozentrista. Beraz EUSKADI «eusko edo eta euskal odola dutenen» aberria litzateke, eta ez euskararen esparrua den lurraldearen konfigurazioa. EUZKADI kontzeptupean arrazak eta kontzeptu geografikoa euskararena baino garrantzi handiagoa zuen, eta aintzinetik, gure tradizioa EUSKAL HERRIA izenak EUSKARAREN lurra edo herria adierazten du, bestal-

de EUSKALDUNAK (EUSKARADUNAK) bere etimologian ere bestainbeste sugeritzen du. EUZKADI, bada, kontzeptu arrazista eta etnozentrista den bitartean, Euskal Herria (euskara duen herria) berriz, kontzeptu linguistiko-kulturala da, eta guztiz irekia. Euskaldun izateko ez da beharrezko odolez euskoa izatea, aski da euskara jakitea; euzkadiano izateko, ordea (bere jatorrian) eusko arrazakoa behar zen, lehen euskarak zuen enfasea eta garrantzia galduz.

Badirudi euskal politigintzan ibili den (eta dabilen) koordenada anitzetan euskaldun izatearen kontzeptu etniko-geografiko hutsa dagoela, eta ez kulturala, hizkuntzari lotua. Filosofia akzidentalista honek euskararen baztertzea suposatu du askotan, hizkuntza ez baita dagoeneko euskal karakterizazioaren ardatza, «vasko» izatearen alde geografiko soila baino.

Honek denak, noski bere ondorio larriak iduki ditu euskaldunen kontzientzian, eta gaitzagoak Nafarroan.

IKUSPEGI BATZUK

Nafarroan gure hizkuntzak jasaten duen egoerak irtenbide zabalagoak eta seriogoak hartzera behartzen gaitu. Lehenik euskarak oraindik XIX. mendean zuen estatus delakoa onartzetik hasi behar gara. Estadistikak esaten digu 1.863 aldean euskara oraindik entzuten zela Iruñetik 30 bat kilometrora Barasoain lurraldetan (Tafallaren iparralde hurbilean, eta mendebaldera Gares, Baldizarbe, Gesalaz, Goñi, Anue, erdialdean Artzibar, eta ekialdean Urraul, Erronkari eta Saraitzu guztira hedatzen zela. Hobekuntza-ren legeak euskara ofizialaren mapa egiterakoan kontutan eduki behar du EUSKAL HERRIA atzo arte kasik izan den lurralde nagusi hori.



Denok jakin behar dugu Nafarroan euskararen galketak zalantza politikoak ekartzen dituela hizkuntza galdu duenak, oso maiz, bere jatorriaren kontzientzia ere galtzen duelako. Nafarroak bada, ez du bere nortasunaren justiziarik egingo bere oroimen historikoa berritzen ez badu, hau da, bere mendetako nortasun euskalduna berreskuratzen ez badu. «Mis padres eran vascos, pero nosotros somos solamente navarros» entzutea trakeskeria soziologiko batez aparte, desnortasun kulturalezko oker nagusi bat da. Euskara berreskuratuz Nafarroak bere funtsa historikoa lortuko du, eta gaur bere baitan pairatzen duen drama «soziologikoa» gainditukо du. Euskararen errekuperazioa naitanahiezkoa da, zor historikoa delako, eta bestalde bertako komunitatearen bakeak bizilagun guztien parekidetasuna eskatzen duelako. Honek guztiak, bada euskararen ofizialkidetasuna gaurko sasi «zonaldetatik» atera JURIDIKOA eta ERREALA izatea eskatzen du.

Luis Maria Mujika

Hiztegia:
elkarrekikotasun-reciprocidad **elebitasuna**-bilinguismo
elebakartasuna-monolinguismo
Hobekuntza-Amejoramiento

ARTZAI BUKOLIKOA

Mundua, duen zabaltasun osoan ezagutu nahiean gabiltza: ilargia, planetak,... eta ondoko herria ez dugu ezagutzen. Hau mixeria! Niri, behinipein, horrela tokatu zait. Eta ez neri bakarrik, ... Batek sinesten du, zalantzarik gabe, beltz guztiak usai txarrekoak direla. Beste horrendako berriz, katalanak derrigor zekenak. Eta honako hau? Honako hau aldameneko herritar guztiak ergelak direla sinetsi. Arront sinetsi gainera. Behinipein, nere kasura jo dezagun.

Bueno, ba ni, hiritar gizaraixoa, mendiak denak margaritak zirela uste nuen. Esate baterako, zer bukolikoagoa artzai izatea baino? Bai al dago? Bere artalde maitagarri, zuri eta garbiren atzetik. Ardi bakoitzak bere izena. Bera,... Joanes, Domingo de Agirrek Garoan deskribatzen diguna. Ez baduzu irakurri egin ezazu orain, pena merezi du eta... Total lurreko aingerua genuela Joanes. Behin ere hitz bat bestea baina altugo, lasai, sinismen handikoa, hitz goxokoa,... Eta lehendabiziko artzai benetakoa ezagutu nuena? Ja! Egun osoa, aserre edo konten, mekauendioska, bertze artzaiekin elkartuz gero, mozkor eta joka; elizako ateritik aspaldi sakondu gabea; eta andre, neska edo ez ezagun antzeko zerbait begiztatuez gero, haiek builak, oihuak eta desioak: POTOTA gora eta POTOTA behera.

Ez nintzen desesperatu. Arraro tokatutako bakarren bat izango zelakoan, aurrera segitu nuen eta normal. Artzaien tartean, edozein talde bezala, denetik egon behar. Eskema bat, beste bat, desegin nuen.

Baina, oraingoa, Kontxo!, non?, zer lekutan kokatu?...

Ez nuen espero, kontatu dudana ikusita, artzaiak txirulekin jarraituko zutenik. Pilarmonik, albokak,... bertsutan gehienak... eta bastante ongi ari nintzela, eskema gutxi gora behera mantentzen... KATAKRAF!

Artaldetxo bat dator karreteraz. Laisterka. Atzetik datorren hogeita piko urteko artzaia, motoz dator! Bai, bai. Mobilet antzeko moto batean eserita. Ardien joariak ez dute: KLIN...KLIN...KLON... egiten. Entzuten dena hauxe da: KLINK!-KLONK!-BRUUUUM!

Eta horrela egun bat, eta beste bat, eta beste bat... Holako batetan, hor dago gure artzaia. Soro baten etzanda eta zerbait irakurtzen. Zer ote? Ez da, ziur aski, Arantzazuko errebista izango. Ardian gain publikazionen bat?... SOLO MOTO! Zilindradak, indar-zaldiak, markak edo izenak... KAWASAKI bat bere ametsa...

Musika gaia aukeratzen dut hitz egiteko. Benito, Amuriz,... Itoiz?... Ba! Azken hauek ez dira sobra txarrak. Onak? Hertzainak, La polla records, Vomito Social... Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

posible al da?

BLAS

MUNDUTARROK GORRAK OMEN

Nazkatuta zeuden Martzianoak lurreko gizakiek beren planetara bidaltzen zituzten satelite eta zikinkeria guztiekin. Asanblada bat egin eta OVNI edo UFO horietako batean Lurrera ordezkari batzuk igortzea erabaki zuten. Alegia, horrela jarraitzez gerotan inbaditu egingo zutela Lurra.

Hartu dute lurra non eta itxita dagoen gasolindegi baten alboan. Gasolina banatzeko makinak ikusten dituzte eta haiengana inguratzen dira martziarrak.

— Lurtarrak! Martitzeko Biltzarre Nazionalaren izenean zera adierazi nahi dizuegu: espaziora zikinkeriak botatzen jarraitzen baduzue, Lurra inbadituko dugula!

Makinek, jakina, ez zieten deus erantzuten.

— Zu, ez al duzu ezer erantzuten? Berriro esango dizut bada, ondo entzun ezazu. Martitzeko Biltzarre Nazionalaren izenean...

Eta makina lehen baino isilago.

— Ez al duzu ezer erantzuten? Nahi duzuna egin ezazu, baina jakinaren gainean zaudete.

Martitzera itzuli eta katxarrotik jaitsi bezain laster Biltzarrera doaz.

— Beno, eta gure abisua entzun eta gero zer erantzun dizuete Lurtarrek?

— Erantzun? Ezta ezertxo ere. Isil-isilik geratu dira, iritsi garenean bezala.

— Horiek dituzte barrabilak!

— Barrabilak ez dakigu, baina pitilina sekulakoa. Beso gainetik pasa eta belarrian zintzilikatua zeukaten...!

AURKEZPEN USAINTSUA

Urte batzuk bazeramatzaten elkarrekin neska-mutil haiek eta egun batean bere etxera afaltzera etortzeko eskatu zion neskak, horrela familia ezagutu zezan. Hasieran ezetz eta ezetz mutilak, baina azkenean ausartu zen.

— Joan dira neskaren baserrira, mahaian eseri dira, eta berehala konturatu mutila, neskaren amari ez zitzaiola begi oso onetik sartu. Afaltzen ari dira, honetaz eta hartaz berriketan, eta halako batean mutiko gizarajoari puzker bat botatzeko gogoa sartu ez zaio bada. Ezin agoantatu, ezin eutsi eta azkenean nola edo hala, xuabe-xuabe, bota du.

Amak usaina hartu bezain laster txakurrari:

— Txikiii!

Mutila lasaitu da, amak txakurra izan dela uste izan duelako eta lasai jarraitzen du kontu-kontari. Eta amak berriro:

— Txikiii! Atera hadi mahai azpitik, bestela zerri honek itoko hau eta.

TTIPI-TTAPA

125 pzta.